# ttipi-ttapa

**203.** zenbakia • 1997ko apirilak 10 • **XVI.** urtea



# Ostrukak jarri dituzte zenbait baserritan

*Oronozko Etxotoan 36 dituzte, Berako Martinekobordan 12... Itxura denez, ongi laketu dira gure bazterretan*

Baserriari laguntzeko modu bezala, esperientzia berria hasi dute zonaldeko zenbait baserritarrek. Afrikatik edo bertze lekuetatik ekarritako ostrukak hazi eta gero saltzea da beraien intentzioa, hegazti haundi hauen haragi, luma eta larrua arras preziatuak baitira. Gu, Oronozko Etxotoako Kiriko Oteizarekin egondu ginen, animalia bitxi hauei buruz zerbait gehiago ikasteko asmotan.

☞ 4


**6** Iritzia: **DBHko 3. mailan uste baino suspentso gehiago**

Sindikatu, ikastetxeko zuzendari eta irakasle baten eritziak bildu ditugu.

**28** Kirolak: **Baztan-Erreka Laxoa txapelketaren XVIII. edizioa hasi da**

Aurtengoan Bertiz Turismo Partzuergoaren babesa izanen du. Hamar taldek eman dute izena, iaz baino hiru gehiagok, aspaldixko honetan izan diren gehienak. Finala ekainaren 22an izanen da.








**Angel Mª MENDIBERRI**

## Arizkungo soinujolea

Joan den urtean akordiolari profesional gisa estrenatu zen baztandar hau. Lehendik ere herriz-herri eta bestaz-besta ibiltzeagatik ezaguna da. Joan den urteko uztailean Txilen eta Argentinak egondu zen, bainak berak erraten duenez, *«nonahi gustora ibiltzen naiz musikarekin».*

☞ 3




Nafarroako Rural Kutxak **Club Solera** aurkezten dizu.
Erretiroa kobratzen ari direnei abantaila guzti-guztiak emateko:




- Abantaila Finantzieroak
- "Solera" aldizkaria
- Bidaiak eta oporrak
- Bainuetxe-Programak
- Erregalo eta Promozioak
- Aholkuak "Solera Directo"
- Ikastaro eta aktibidadeak
- Klub eta Elkarteekin elkarlana

...eta abantaila mordoa gehiago. Pentsionista baldin bazara zatoz Rural Kutxako bulego batera eta eskatu karneta. **Abantaila guzti-guztiak** ditugu zuretzat.

NAFARROAKO RURAL KUTXA

DATUAK..........

❖ *Angel Mª orain 26 urte sortu zen Iruñean. Ama Arraiozkoa eta aita Arizkungoa izanik, laister etorri zen Baztanera.*

❖ *Bederatzi urtetan hasi zen musikan, solfeoa egiten. Hameka urte zituela hasi zen akordeoiarekin eta 12 urte pasatu ditu akademian.*

❖ *Gan den urtean hasi zen akordeolari bezala profesionalki. Aitzinetik Orakunde egunetan, kinto-bestetan eta honela ibiltzen zen, baina beti bertze ogibide bat izanik.*

❖ *Inguruan hain ugaria den musikari klasea da: Akordeoia eta teklatua hartu eta deitzen duten tokietara gaten dena, alegia.*

TESTUA:
AITOR AROZENA

☞ **Angel Mª MENDIBERRI** *Arizkungo soinujolea*

# "Musikatik bakarrik bizitzea zaila da, lan bat atZeman behar duzu"

**ZUK ZEONEK SOLFEO IKASIA DUZU, BAINA ZENBAIT MUSIKARIK EZ DELA BEHARREZKOA ERRATEN DUTE. ZER IDURITZEN ZAIZU?**

Aunitzez hobe da, naski. Batzuk badute fazilidade ikaragarria 'de oido' erraten den bezala, entzumenaren bitartez, musika egiteko, baina beti hobe da solfeoa izatea.

**ZU BAKARRIK JOATEN ZARA EDO BERTZE MUSIKARIEN LAGUNTZA IZATEN DUZU?**

Akordeoia eta teklatua hartu eta nerone bakar-bakarrik gaten naiz. Horretaz aparte, gitarra ere pittet jotzen dut, baina, gehien bat akordeoia izaten da.

**URTE AUNITZ DIRA, AKORDEOIA BIZKARREAN HARTU ETA HERRIZ HERRI IBILTZEN ZARELA. OROIMEN BEREZIRIK?**

Leku guzietan izaten da zerbait, kinto-besta dela, plazaren bat, ezkontzaren bat... Gan den urteko uztailean Txilera gan nintzen, bertako Nafar Zentrora eta arras ongi... hamasei egun Txilen eta lau Argentinan pastu nituen. Oroimen ona utzi nau bidai horrek, hemendik joandako jende aunitz baitzen han. Nonahi gustura ibiltzen naiz musikarekin. Zerbait aukeratzekotan, ezkontzak aukeratuko nituzke.



«Nere musikarekin gehien bat gazte jendeak dantzatzen duela erranen nuke»

**PLAZAN GERO ETA JENDE GUTIAGO IBILI OHI DA DANTZAN. ZERGATIK?**

Bai, badira urte batzuk hori horrela dela. Arras errekista guti dauka musikak eta orkesta aunitz porrot egiten ari dira. Zergatik? Ba, jende aunitz barretan sartzen da, hor ere musika badute eta bestak horrela dira. Bakarrik musikatik bizitzea zaila da, behar duzu lan bat atzeman. Ni probatzeko hasi naiz, baina hasieratik banekien hontik bizia ateratzea ez dela errex... Ongi izanen litzateke lan bat atxematea eta musika asteburuetarako uztea.

> *"Adineko jendeak rantxerak eta fandangoak eskatzen ditu, gazte jendeak berriz, azken modako kantuak. Errepertorioa eguneratua izan behar duzu, bertzenaz akabo!"*

**ETA ZER EGITEN DUZU, ZU JO ETA JO ETA INORK DANTZATZEN EZ BADU?**

Jotzen segitu eta fini, ni profesionala naiz eta musika jotzeagatik ordaintzen naute, nere lana da eta kitto. Jendea baldin bada hobe.

**ZEIN ADINEKO JENDEA IBILTZEN DA GEHIAGO DANTZAN?**

Denetarik, baina gazteak igual gehiago. Nere musikan denetik dago, baita gazteendako musika ere bai. Adineko jendeak 'rantxerak', fandangoa eta honelakoak eskatzen ditu eta gazte jendeak berriz, azken modako kantuak. Errepertorioa eguneratua izan behar duzu, bertzenaz, akabo!



**Ostrukak. Berez Afrika eta Arabia aldeko animaliak badira ere, iduri du gure ingurunean ederki moldatzen direla. Dirua ematen zutela eta eskaria bazegoela adituta, animali bitxi hauekin saiatzea gogotu zaio Kiriko Oteiza Oronoztarrari. Gaur egun, oilo eta zerriez gain, 36 ostruka ikusten ahal dira Etxotoa baserriko belategian laisterka edota lurrari pikoka, hori bai, burua lurpean sartu gabe.**

TESTUA: *ASIER* GOGORZA
ARGAZKIAK: *AITOR* AROZENA

# NAMIBIATIK ORONOZERA

Bertze baztandar bat izan zen, hala ere, ostruken negozioan hasteko ideia izan zuena. *«Argentinako nekazarien aldizkari bat leitzen ari nintzela jakin nuen ostruken haztegiak bazirela han, eta hemen ere horrelako zerbait egitea bururatu zitzaidan»*. Bittoriano Jauregiren hitzak dira, Espainiako eta Kataluniako ostruka hazleen elkarteetako kide dena, oraindik ostrukarik ez badu ere. Lehenbiziko momentutik denek erokeria zela eta ez zela posible erraten bazioten ere, *«hemengo hotel batzutan ostruka haragia ematen zutela ikasi nuen prentsan irakurrita»* eta horixe zen Bittorianok behar zuena bere proiektua gau-

zatzeko, eskaria izatea.

Kiriko Oteizarekin batera, iparraldeko Oragarre herrian dagoen ostruka-granja bixitatu zuen eta haiekin egon eta gero erabaki zuten ostrukak erosi eta haztea.

Kirikok Iruñeatik 2 edo 3 hilabeteko 36 ostruka ekarri zituen. Orain 6 hilabete pasatuxe dituzte. Bittoriano, bertzalde, erosi aitzinetik baserri inguruak ongi prestatzen ari da azken aldiotan.

Amaiurtarrak erran digunez, ostruka hazleen elkarteetan ere bere egoera berdinean (ostrukarik gabe) dauden kide gehiago ere ba omen dago. Elkarte horren bitartez, Afrikako Namibia edo Zinbawe-tik eta Europako Belgika edo Holandatik ekartzen ahal dituzte ostrukak.

**Beran, Lekarozen, Dantxarinean...**

Munduan ezagutzen den hegaztirik haundiena den honek, eguraldi idorra hobea du bizitzeko, baina ez du iduri gure klima heze honek kalte haundirik egiten dionik. *«Gogorrak dira ostrukak, hemengo hezetasuna ongi agontzen dute. Oragarrekoak, errate baterako, gan den urtea nahiko euritsua izan zelarik nahiko ongi moldatu ziren»* azaldu digu Bittorianok. Inguru honetako bertze leku batzutan ere paratu dituzte ostrukak, edo paratzeko asmoa dute. Beran bertan, Kirikok dituenak baino guttiago badira ere, zenbait ostruka badaude Martinekoborda aldean. *«Dantxarinean, bertzalde, ostruka hauek saltzen dituena dago, eta harek ere baditu bereak»* erran digu Bittorianok. Bertze batzuek, berriz, plana egina dute, Lekarozen eta... Bistan denez, negozio probetxugarria suerta daiteke ostrukena.

**"Dena probexten da"**

Horixe erran zigun Kirikok bere etxean egon ginenean, *«lumak zamarrak egiteko; larruak ere sosa haundia balio du, boltsak egiteko-eta erabiltzen da; eta haragia ere ongi saltzen da»*.

Behin hazitakoan, 12 edo 13 hilabete dituztenean, saldu egiten dituzte, baina ezin dira edozein hiltegira eraman, *«ostrukekin zer egin jakin behar dute han, nola hil eta nola apaindu behar diren, bertzenaz balorea galtzen dute»*. Kirikok, Donostiko hiltegi batera eramanen ditu bere ostrukak.

Etxean dituen bitartean, pentsua eta belarra ematen die bazkatzeko, *«lan guti ematen dute, egunean bospasei aldiz zerbait pasatu ote zaien begiratzera joan, pentsua bota...»* Arrak eta emeak denak nahasita kontzen ditu Kirikok, baina ar batekin bi eme paratu behar dira. Normalean, 2 metrotik goiti neurtzen duten animalia hauek lasaiak dira, nahiz eta ikusten duten guziari pikoka ibiltzen diren. Hala ere, emeak bero daudenean arrak arriskutsu bihurtzen omen dira, *«ez dute emeari hurbiltzen uzten»*.

Azken boladan bisitari ugari hurbildu omen da Etxotoara, *«ostrukak ikustera ikastetxeetatik-eta aunitz etorri dira, besta eguna eta eguraldi ona delarik, pilaka»*. ■

# «Azpizunaren gisakoa da ostrukaren haragia»



**Bittoriano JAUREGI**

Ostruka, hegazti laisterkalaria, hegazti guzietan haundiena da, eta telebistako dokumentaletan noiznahi ikusten ahal baditugu ere, bertatik bertara begiratuta zirraragarriak direla onartu behar da, ez baitira egunero ikusten horrelako oilotzarrak. Hegazti hankaluze hauek Afrika eta Arabiakoak dira jatorriz, baina Bittorianok erran digun bezalaxe arras ongi moldatzen dira munduko edozein bazterretan: *«normalean, Hegoafrika aldetik ekartzen dira ostrukak, Kirikorenak Namibiakoak dira denak. Gero ezagutzen dut Madrildar bat Zinbawetik ekartzen dituena, eta Kataluniako elkartekoek Belgika eta Holandan erosten dituzte. Pentsatzen dut Holandan ez dela halako klima idorrik izanen, eta idorra bada ostrukentzako aise hobea dela uste dut»*.

Munduko bertze txoko batzuetan ere badira ostrukak, edo ostruken familikoak direnak. Hegoameriketan, adibidez, "**ñandu**" izeneko hegaztia bizi da, itxuraz ostrukaren gisakoa, baina hanka bakotxean 3 behatz dituena. Zelandaberrian "**kiwi**"a dago, ostruka eta ñandua baino puskaz ttikiagoa, oilo baten tamainekoa, eta familia berekoa da. Azkenik, eta Australiaraino joanez, "**emu**" izeneko bertze hegazti laisterkalaria aurkituko dugu, ostrukaren lehengusua, 2 metro luze eta 60 kiloko pisuarekin. *«Emua ostruka baino ttikixeagoa da, baina aisa lur guttiago behar du, 10 aldiz guttiago. Gainera, emuaren grasa kosmetikarako erabiltzen da, eta hoietan bila dezakegu ostrukentzako alternatiba»* azaldu digu Bittorianok, eta emuen bertze alderdi positibo bat ere bota du, *«denbora hezea den tokietan baliteke emua ostruka baino hobe egokitzea, Australian montzoi garaian ere arrautzak paratzen dituzte-eta»*. Hauek osatzen dute ostrukaren familia, "ratite" izeneko familia bitxia.

Ostrukaren haragia nolakoa ote den galdetu diogu Bittorianori, eta zera erran digu: *«Nik Etxalarren probatu nuen, gusto ona du, azpizun edo solomilloaren gisakoa, baina kasu eman behar da sobera erre gabe, bertzenaz idortu egiten baita»*.



Kiriko Oteiza bere familiarekin, ostruken aitzinean

**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.400 ALE

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa
Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa: 63 11 88
Faxa: 63 12 91
**Internet:**
http://www.encomix.es/ttipi-ttapa
**e-mail:**
ttipi@encomix.es
**e-mail:**
ttipi@mail.sendanet.es

**Zuzendaria:** Joxemanuel Irigoien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Asier Gogorza, Joxemanuel Irigoien. **Administrazioa:** Amaia Goia. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Patxi Otxandorena, Ixabel Maia, Josune Etxepeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Elixabet Iturria, Garbiñe Maiz, Oskar Txoperena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Kristina Boan. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Mikel Bezunartea, Joxe Javier Etxeberria...
**Inprimategia:** Graficas Ona.
***ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik.*
**Erakunde Laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea, Zugarramurdiko Akelarre Elkartea...

**Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du**



GAURKOTASUNEKO GAIA

# DBHko 3. mailan uste baino suspentso gehiago

## DBH bere osotasunean ezarri arte ezin da bertan behera utzi

Koldo LARREA
STEE-EILAS

Hezkuntza sistema berria kilikolan jarri da LOGSEk bultzatzen duen DBHak jasaten ari den erasoagatik. Egunkarietan irakaskuntzari buruzko berriak eguneroko gauza izan dira. Departamenduak plazaratutako neurriak 2. ziklorako dira eta aldez aurretik pentsatutakoa gauza da (Markotegi dixit), eta ez dute zerikusirik ebaluaketan jasotako emaitzekin, biek elkarrekin agertu arren. Betidanik DBH eta LOGSEaren kontra izan direnek (Nafarroan UPN eta estatuan PP) tranpa galanta luzatu digute, zailtasunak dituzten ikasleak erabili izan nahi dituztelako. Sistema berri bat ezartzen ari den heinean, desorekak, arazoak... sortzen dira, baina, honen ondorioz 'kontrareforma' bat diseinatzea onartezina iruditzen zaigu. Proposatutako neurriek benetako 'kontrareforma' suposatzen baitute: DBHaren etapa bere osotasunean ezartzen ez den bitartean (2. ziklo hasieran gaude) ezin da bertan behera utzi eta legearen kontra zuzenean jotzen ez badu, gutxienez orohartzea eta integrazioa aldarrikatzen dituen hezkuntza ezabatu nahi duen plana inposatu.

## Zaila da 12 urtetan motibaziorik ez zuena 16 urtetan motibatzea



Prontxio IRURTIA
Leitzako institutuko zuz.

Nafarroan hiru ikasletatik batek bakarrik aprobatu duela zabaldu da, baina gure ikastetxean ez da portzentai hori ematen, nere ustez lehen bezalatsuko portzentaia mantentzen da. Hemen gehienak euskal eredutik ari dira, erdarazkoan ari direnak azken ale bakar batzuk besterik ez dira, baina egia esan, ez dute emaitza onegirik lortu. Alde batetik, irakasleak programa berriari egokitu behar dira. Eta bestetik, kontua da orain 16 urteak arte segitu behar dutela, nahitanahiez, gogorik ez dutenak ere. Orduan, ibili eta buelta, gu ari gara nolabait langabezia estaltzen. Lehen 12 urtetan lanera joaten zen jendea eta diskriminazio gutxiago izaten zen. Lanaren motibazioarekin guztiak berdintsu aritzen ziren. Gero 14ra eta orain 16 urtetara pasatu zuten derrigorrezko hezkuntza. Eta, nola motibatzen duzu 12tan motibaziorik ez zeukana? Ez zait iruditzen arazoa programa aldaketatik datorrenik. Lanbide Heziketa kentzea ere atzepauso ikaragarria iruditzen zait, teoria ikusi ezin zutenentzat irtenbidea zelako.

## Ikasleen interesetatik abiatu artean Erreforma gezurra izanen da



Juainas PAUL ARZAK
Irakaslea Lekarozen

Nik 3. mailako bi talde ditut kurtso honetan eta 1. ebaluzioko emaitzak ezberdinak izan ziren. %7a (euskal lerroan) eta %47,5 (erdal l.) kateatu nituen. Ez dut uste ereduen arteko desberdintasuna denik, alderantzizkoak ere ematen baitira. Ezta puntuazio sistema aldatuz konponduko denik. Are gehiago, pertsonekin ari gara eta portzentaiak ez dute deus argitzen. Harritzen nau 1. ebaluzioko emaitzekin horrelako buila sortzea, ez bada tonto eta listoen arteko banaketa bilatzen delako. Goiko instantzietatik hori nahi dela iruditzen zait. Eta okertu naizela gustora onartuko nuke. Erreforma 'deskafeinaturik' sortu da, urratzea lortu gabe. Ikasle bakoitzarekiko egokipen asmoa hitzen mailan gelditu da, hezkuntz sistemaren aldaketak ziurtatu behar zituen diru eta baliabideak ez baitira gauzatu. Talde berdinean interes ezberdineko ikasleak elkartu dituzte bi kurtso gehiagorako. Pertsonala murriztu eta aukerako asignaturak desagertuz ikasleen interesetatik abiatzerik ez dago eta hori lortu arte, Erreforma gezurra izanen da.

**ARTEKARI**
TALDEA
ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

**LESAKA:**
- Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
- Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.

**Non:** MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

**IRUÑEA:**
- Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40

**Non:** Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- Langile Autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-kontratutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitorpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bideragarritasun planak eta

## BOTA BERTSOA



### *Sarako Beti Gazte elkartearen lehendakaritza uzterakoan...*

**Manex BERGARA**

Neurria: Hamarreko haundia

*Zueri esker bizi izan den*
*Beti Gazte elkartea*
*Bakotxak hemen hartu dezala*
*gure eskerren partea*
*elkartasuna gauza ona da*
*malurusa apartea*
*gutarik urrun bota dezagun*
*berexkuntzaren artea*
*amodioak argitu dezan*
*ilun den begitartea.*

*Nere ahalak eginak ditut*
*Beti Gazte nahiz zaindu*
*bainan adinak bilakatu nau*
*zango burutarik maingu*
*laurogoi urte geldi ordu da*
*behar nauzue ordaindu*
*berdin ondotik nahi duenak*
*nahi duena esain du*
*beraz gaur hemen, Apezpikua*
*egizue Aita Saindu.*

## IRAKURLEAK MINTZO

**Zubietan errespetorik ba al dago?**

Zubietako jendeari gure pentsaera idaztera goaz. Badakigunez joareak jotzera joan edo ez zuten joan behar, denok ez dugu berdin pentsatzen. Batzuel alde eta beste batzuk kontra, gauza guzitan bezala. Kritika bat jarri diote joan zirenei. Bueno, gure ikuspuntutik begiratuta hauxe da:

Ongi iruditzen zaigu beraien pentsamendua idaztera, baina ez zaiguna ongi iruditzen joan zirenei gauza zikinik edo edozein gauza esatea, esan duten horiei ez baitiote gauza zikinik inork esan. Beraiek inposatu behar al dute iritzia? edo pentsaera? Badaude gauzak jartzeko formak inori gauza txarrak esan gabe. Umeak joan zirela esan dutenak:

– Beraiek gizonak al dira hori esanda???

– Gizontzat jotzen al dute beraien burua???

Zubitan joaldunak ez dute bilerarik egin, batzuen esana bakarrik da. Mila durokoak izan baziren jornalak, joan ziren horiek eta bertze hainbat soberan izango ziren gure ustez eta orduan kakak ez zuen deus ere usainduko.

Herrikoa ez den idazle horri, idazteko lehenik ikas dezala edukazio piskot izaten, herriari minik egin gabe.

MAKILA IPURDI TALDEA
(ZUBIETA)
N.A.: 44640122-C

**Arrats batez...**

Mingainak astintzea lortu dugu. ERAUSIAN Bortzirietako Gazteen Euskara Taldeak arrats oso bat euskara hutsez jarri gintuen, non eta Beran; non eta Bortzirietan. Mingaina dantzan paratzen lagundu zuten hainbat euskaltzalek arrats hartan, eta hori ezin dugu ahantzi. Doakiela, beraz, gure eskerrik haundiena Zizkuitz txarangari; Berako txistulari eta trikitilariei; Errekalde, Pui, Zizka eta Bidaxka ostatuei, Ricardo Baroja eskolari; Labiaga ikastolari; Korrika 10 batzordeari; sukaldariei; Lasarte-Oriako txiskolariei, Altxatari, Ttipi-Ttapari; Bortzirietako Euskara Mankomunitateari; afaltzera agertu zineten guzioi eta euskaraz aritu zinetenei. Euskaraz ongi pasatzerik badela erakutsia geratu da. Hainbertze kostatzen al da egunero martxoaren 15eko arratsa izatea? Astindu zure mingaina, hizkuntzak merezi baitu! Eta ez ahantzi: euskara bihotzean...ETA EUSKARA MINGAINEAN!

ERAUSIAN, BORTZIRIETAKO GAZTEEN EUSKARA TALDEA

**OHARRA:**

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero,* **ttipi-ttapa***k bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*


NAFARROAKO PRODVKTV
*ELIKAGAIAK*
*Gazta, Txistorra, abatekiak, goxuak, barazkiak, ardoa, patxarana eta likorrak*
*ESKULANAK*
*Egurra, buztina, burdina, zumitza*
Astelehenetik igandera irekia
Altzate 14 • Tfnoa: 631151 • BERA

Errekalde ostatua
Ortziraletan, 10etan Mus Txapelketak
Tfnoa: 630259 - BERA

txiki txoko
Tfnoa/faxa: 943-619634
Juan Arana galeria, 10
IRUN
mugan
Mugan Elkarteko komertzioa
Haur eta gaztetxoen arropa (0tik 16 urtera)
Jaioberriendako artikuluak:
Seaskak, kapazuak, saskiak, haurkotxeak eta zure haurtxoarendako behar duzun guzia.
*Bisita gaitzazu, harrituta geldituko zara.*

KOLABORAZIOAK

Patri ARBURUA *Bortzirietako Euskara Teknikaria*

# Lanpostuetarako euskara frogak (II)



Aitzineko ale batean erran bezala, Udalek eta bertzelako erakundeek ateratzen dituzten lanpostuetarako euskara frogetan jendearen aldetik euskararekiko utzikeria eta seriotasunik eza somatu dugu Euskara Teknikariok. Lanpostua ateratzen duen Udal edo erakundeen aldetik ere, maiz horrelako jarrerak ikusi ditugu, eta hori are larriagoa iduritzen zaigu. Batetik, froga aunitzetan euskaraz jakitea ez da derrigorrezkoa izaten. Errate baterako, Baztango Udalak haurtzaindegirako ateratako lanpostuaren kasuan euskaraz jakitea ez zen derrigorrezko baldintza izan. Pentsa, Baztango haurrekin lan egin behar zuen pertsona erdalduna izatea Udalari ez zitzaion axola...

Lesakan ere, Udalak duela bi urte idazkari lanpostua atera zuen eta euskara baloratu bertzerik ez zuen egin. Gainera, aurreko idazkaria euskalduntzen hainbertze diru (publiko) gastatu ondoren...

Bertzalde, udal batzuek onartua dute aterako dituzten lanpostu berrietan euskaraz jakitea derrigorrezko baldintza izanen dela. Halere, Udal hoiek guttitan jokatzen dute behar den koherentziarekin: euskaraz solasten dakien edozeinek gainditzen ahal du euskarako froga eta ez du gehiegi inporta euskaraz (ahoz eta idatziz) behar bezalako maila ez badu ere, nahiz eta gero horixe izanen den herritarrak atendituko dituen pertsona. Gainera, berriki Berako Musika Eskolako administrari lanpostuarekin gertatu den bezala, frogak egiterakoan teknikarion iritziak eta erabakiak ez errespetatzea ere gertatu izan zaigu.

**Udalek ez dute koherentziarekin jokatzen: euskaraz behar bezala trebatua ez dagoen langilea hartuz gero, langile horrek gero ez du herritarrei euskarazko zerbitzua behar bezala emateko gaitasunik izanen.**

Hainbertze froga egin ondoren, geure buruan hamaika galdera sortzen zaigu: Udalek eta erakunde publikoek horrelako jarrerak baldin badituzte, noiz izanen dugu euskaraz funtzionatuko duen udal administrazioa? Zergatik ez diote euskara frogari erdarakoari adina garrantzia ematen? Euskararen Lege exkax hori onartu zela hamar urte pasa ondotik, Udalek eurek zergatik ez diete herritarrei garantizatzen udal administrazioan euskaraz behar bezala atendituak izateko oinarrizko eskubidea? Udalek egiazki planteatu al dute helburu gisa gure herri eta udaletan euskara normalizatzea? Gai honek ez al du zerikusirik kargu publikoek euskaraz aritzeko maiz izaten duten gaitasun ezarekin?

Xabier BALLARENA *Xorroxin Irratia*

# Xorroxin hobetzeko erantzun inkesta



Xorroxin irratiaren kalitatea hobetzeko helburuarekin inkesta luzatu dugu eta oraindik goiz bada ere, dagoeneko 200 erantzun jaso ditugu eta zenbait ondorio ateratzeko baliagarria izanen dela iduritzen zaigu. Nabari da gehien bat eguerdi aldera aditzen da eta gehienak emakumeak dira (%60 inguru). Etxeko lanetan aritzen direnak eta ikasleak dira gehien erantzun dutenak, jubilatuek berriz, arras guti. Batzuetan, ordea, nabaritzen da ez dutela aditzen eta erantzun kontraesankorrak ematen dituzte. Entzule xintxoak direnak ere berehala nabaritzen dira eta erantzun arras interesgarriak eman dituzte. Nere ustez, karrikara ateratzeko frexkotasuna galdu dugula nabari da, jende aunitzek eskatzen du karrikako inkestak eta honelakoak egitea. Jendearekiko harremana galdu dugula iduri du. Euskararen ulergarritasunari dagokionez, jendeak ongi ulertzen du. Seinalearen kalitatea nahiko ona da, Urdazubin ezik. Bortzirietan Larrunen antena paratu genuenez geroztik ez da arazorik eta Bortzirietatik inkesta aunitz ailegatu dira –Elizondo eta Beratik iritsi dira erantzun gehien– eta gehienak seinalearekin kontentu daude. Arratsaldean saio gehiago egitea eskatzen dute, hor tarte haundi xamarra baitago musikarekin bakarrik. Programen edukiari buruz ez dugu deus garbi atera, bakoitzak bere gustoak ditu. Halere, gehien puntuatu dutena Herriz Herri saioa izan da, batez ere gehien aditzen dena delakoz. Batzuk hori bertzerik ez dute aditzen.

Proposamenen mailan, hartuemaneko saioei tarte gehiago ematea nahi dela ikusten da: lehiaketarako denbora gehiago uztea, eskaintzen saioa luzatzea, arestian aipatu ditudan karrika-inkestak...

**Hartuemaneko saioei tarte gehiago ematea nahi dute: lehiaketa luzatu, eskaintzak, karrika-inkestak egin...**

Elkarrizketa onenak *Karakola segi hola* saioan egiten direla uste du jendeak, *Elkarrekin lanean* saioa arras ongi omen dago... Programa berriren bat sartzekotan, gazteendako saio gehiago eskatzen dute, errezeten txokoa, etxeko arazo ttikiak konpontzeko saio bat... Honen ondorioz, programazioan aldaketak egiteko asmoa dugu, jendeak eskatzen dituen gauzak sartzeko nahia, edukiak hobetu... Baztandarren Biltzarrarekin egiten dugun segimendu berezia Bortzirietako ekitaldi berezietan, Lurraren Eguna, adibidez, egitea espero dugu. Ondorio gehiago ateratzeko jende gehiagok erantzutea behar da, beraz animo! Gainera 25.000 pezeta irabaz ditzakezu!

## PRENTSATIK BILDUTAKOAK



Egunkaria 97-III-27

*«Lesakan bazen horrela zebilen gizon bat; jubilatu zen eta ez du inork hartu. Orain Baztan, Malerrekan eta Bortzirietan Iruritako bertze bat eta ni gabiltza soil-soilik. Lanbidea desagertuko da»*

**Jose Juan DESKARGA**
Eratsungo dendaria herriz herri
Egunkaria 97-III-27

*«Bartzelonara joatea erabaki nuenean, ikusi behar zenuen nola egiten nuen negar telefonoz Barcelona taldera nindoala baieztatu nuenean. Inoiz ez nuen pentsatu Donostia utziko nuenik».*

**Joxe Mari BAKERO**
Goizuetako futbolaria Mexikon
Egunkaria 97-IV-1

## 11 GALDERA LABUR



**Eva GURUTXARRI**
Psikologa. Kriminologia ikaslea.
ARESO

- **Zergatik Salamankaraino ikastera?**
  - Psikologia industriala bukatzearren, gustoko nuelako eta pixkat aldatzeko.
- **Zer ikasi duzu sentimenduei buruz?**
  - Bapatekotasuna da garrantzitsuena, itxurak egin gabe, maitasuna ezin da fortzatu.
- **Egun batean pentsamendu eta sentimenduen gaia jorratuko da eskoletan?**
  - Hasia da dagoeneko. Liburu bakoitzetik mami asko atera daiteke.
- **Gizakion harremanak zergatik daude kolokan?**
  - Errespetoa da harremanen zutabea. Hau galtzen denean dena erortzen da.
- **Denok irakurri beharko genukeen libururen bat?**
  - Dudarik gabe, beste mundu baten sartzea esperientzia ederra da.
- **Zer iritzi duzu yoga praktikatzeari buruz?**
  - Gustatzen zait, erlajazioa eta arnasketa lantzen dira. Zure gorputzaren erritmoa ezagutzen ahal duzu.
- **Momentu bakoitza, bizitzeko bakarra al da?**
  - Bai, baina... gehiegi izanen litzateke hemen adituen iritzia jartzea.
- **Autoestimaren gaia, nola ikusten duzu orokorrean?**
  - Zer esango duten alde batera utzi eta gure gogoari jarraituz gero, askoz hobe joanen litzaiguke.
- **Eguraldiaren aldaketak gure jarreran eragina izaten du?**
  - Jendeak aldaketa hoietan sentsibleak dira, udaberria, udazkena... beste batzuek ilargiaren faseen eraginean sinesten dute.
- **Arropa kontuetan jarraitzen diozu modari?**
  - Batzuetan, gustatzen zaidana erosten dut modari kasurik egin gabe.
- **Egia da zoriontasuna bakoitzaren barruan dagoela?**
  - Batzuetan jaungoikoa bagina zoriontsu izango ginateke, beste batzuetan Jaungoikoa sentitzen naiz eta zoriontasuna bilatzen segitzen dut.


GOYA
JOSTAILUAK
JANTZIAK
OPARIAK
ERREMINTAK
Altzate, 5 • ✆ 63 00 83 BERA

ttipi-ttapa
✆ 631188
Zure publizitaterik onena


GAZTAÑAGA
ATE eta LEIHOAK
ERAKUSKETAK
IRUN
Luis Mariano
Tel.: 943.625888
PRYCA
Zentru komertziala
Tel.: 943.492597
TAILERRA
Meatzarien, 3 (Arretxe Gaina)
☎ 627633-Fax: 624392
IRUN

ZALDUBI
Martin Lizasoain Adansa
Zaldubia Poligonoa • ✆ 580562
IRURITA - BAZTAN
Sukalde eta Bainu Mobleak
Egoki-ren banatzaile baimendua
EGOKI

HEZKUNTZA

# Sare pribatu eta publikoaren arteko desorekak salatu dituzte sindikatuek

## Hurrengo ikasturtean Nafarroan 19 "hastapen" programa berri abiatzea espero da

Hurrengo ikasturtera begira, "hastapeneko" 19 programa berri paratuko ditu martxan Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak. Orain arte LOGSE-ren Gizarte Garantia izandakoari deitzen diote "hastapeneko" a. Horretaz aparte, Lanbide Heziketa (LH) berriaren maila ertaineko eta goi mailako 8 ziklo ere abiaraztea nahi du Hezkuntza Sailak.

LOGSE-ren ezarketa planen arabera, heldu den ikasturtean, 97/98 an, DBHaren azken kurtsoa (4.a) hasiko da eta BBB eta LHko 2. maila desagertu eginen dira. Iaz, LH berriaren zati bat aitzintzea erabaki zuen gobernuak, eta hau beharrezko bihurtzen den arte, aitzinduriko zikloak LH zaharrarekin batera bizitzen segitu beharko dute.

### SINDIKATUAK KONTRA

Sindikatuen gehiengoak salatu egin zuen gobernuaren jarrera, gai honi buruz negoziatzeko kapazidade falta erakutsi duela argudiatuz. Eztabaidarako lekurik ez dutela utzi, eta proposamen desberdinak kontuan hartu beharko liratekeela uste dute sindikatuek, gai honek eragina izanen baitu plantilak osatzerakoan. Gainera, planifikazio orokorraren aldetik gabezia aunitz ikusten dute, alegia, sare publikoaren eta pribatuaren arteko koordinazio falta. Sare publikoaren barnean, ere, ikastetxe desberdinen arteko desoreka salatu dute sindikatu gehienek.

LHko zentru zaharrek Gizarte Garantiako programen gehiengoa hartuko omen dute, eta ez dago jakiterik irakaskuntza ertainetan aritzen direnekin zer gertatuko den.

Arazo guzi hauek nolabait ere moldatzeko, planifikazio orokor baten beharra aldarrikatu dute sindikatuek.



Elizondoko "Laborala"

### ESKUALDEKO ZENTRUEN ESKAINTZA

**✖ SAN MARTIN (ORONOZ)**
- **Ziklo ertainak:** Oihangintza eta ingurunearen mantenimendua

**✖ TOKI ONA (BERA)**
- **Hastapena:** Elektromekanika laguntzailea
- **Ziklo ertainak:** Instalazio eta mantenimendu elektromekanikoa
- **Goi zikloak:** Industri ekipoaren mantenimendua

**✖ LEKAROZ/ELIZONDO**
- **Hastapena:** Soldatzaile / Bulego laguntzaile
- **Ziklo ertainak:** Mekanizazioa / Administrazio kudeaketa
- **Goi zikloak:** Administrazioa eta finantzak

Dia % Autozerbitzua deskontua
Hamabostero ofertak
Zatoz eta ikusi
Eztegara, 6 • ✆ 63 14 03 • BERA

barnek s.l.
Sukalde mobleen fabrika
Zuzeneko salmenta
Lesakako sarreran, Beko-Errota ondoan
Otsango auzoa • LESAKA • Tel.: 637850, Fax: 637928

ttipi-ttapa
6.400 harpidedun
22.000 irakurle
✆
631188

## BERA

# Apirilaren 11n eginen da Gure Txokoaren Batzar Orokorra

Iamotenean izanen da bilera, arratsaldeko 8tan hasita

ASIER GOGORZA

Gure Txokoa elkartekoek, egun hauetan etxez-etxe banatu duten urtekariarekin batera, ortziral hontan Iamotenean ospatuko den Batzar Orokorrera deitu ditu bere bazkide guziak. Honako hau izanen da batzarrean jorratuko diren gaien ordena: 1.-Iazko aktaren onarpena. 2.-Kontuen onarpena. 3.-Zuzendaritzaren intentzioak. 4.-Batzorde berria. 5.-Eskaera eta galderak.

### Euskal Herriko txapelketako bertso saioa konfirmatua

Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren kanporaketa bat Beran eginen dela konfirmatu egin da. Hasiera batean, kulturako zinegotzia den Patxi Alzugurenek zaila izanen zela erran zuen, kulturako aurrekontuak onartuak zeudelakoz, baina hala ere, orain bertze nonbaitetik murriztuta, beharrezko dirua aterikodutela adierazi digu. Ekitaldi garrantzitsu hau antolatzeko 400.000 pezeta eskatzen dituzte Bertsozale Elkartekoek. Aintzineko alean erran bezala, bertso saioa azaro aldera eginen da Eztegara pilotalekuan.



Patxi Vilak sari garrantzitsua eskuratu zuen

### Mendiko saria irabazi du Patxi Vilak Erriberako Itzulian, Valentzian

Afizionatuen mailako laisterketa honetan mendiko saria irabazteaz gain aurre-aurrean ibiltzea lortu du itzuliak zituen bi etapetan. Lehenbiziko etapan zeuden mendiko hiru portuetatik 2tan lehenbiziko postuan iragan zen Caja Rural taldean ari den beratarra. Azkenerako 20ko talde batean ailetu ziren helmugara eta bigarren etapan bezalaxe, esprinean akitu zen laisterketa. Pasa den larunbatean, Lizarran egin zen proba bat korritu zuen Patxik, profesionalekin batera. Biharamonean, Eibarko Balentziaga Klasikan parte hartu zuen, baina oraingoan afizionatuen mailan.

### Gazte Jokoetan parte hartu nahi dutenek apirilaren 11 eta 18an eman beharko dute izena Iamotenean

Aitzineko alean 24ean izanen zela erran bagenuen ere apirilaren 26an hasiko dira aurtengo Gazte Jokoak. Larunbata horretan, inaugurazioa eta Patinoztopo izeneko proba izanen dira Altzaten. Maiatzaren 1ean, Panpin Erraldoiak eraiki beharko dituzte partehartzaileek, eta maiatzaren 3an, Jinkana Kulturala jokatuko da. Iazkoan egin gabe gelditu zen Zabor Bilketa maiatzaren 10erako iragarrita dago eta azkenik, maiatzak 16 eta 17an, parodia eta bukaera besta eginen dira, partehartzaileen afari eta guzi.

Hauexek dira apuntzeko paratu dituzten baldintzak:

-Talde bakotxa 15 urtez goitiko 8-10 lagunek osatuko dute. Bi ezik denek Berakoak beharko dute izan.

-Talde guziek izena eta ordezkaria behar dute.

-Izenematea: apirilaren 11 eta 18an Iamotenean, arratseko 7,30etatik 8,30etara.

## flash

**Miriam Blas**
Espainiako mountain bike selekziora deitu zuten, eta apirilaren 1etik 6ra Panticosan egin zuten kontzentrazioan egondu zen. 2.000. urteko Joku Olinpikoetara begira, aurtengo udan izanen diren Europako Txapelketa eta Mundialerako indarrak neurtzea zen kontzentrazioaren helburua. Miriamek jaitsiera proba guzietan parte hartuko duela erran du entrenatzaileak .

**Okalarrera**
Joan den asteko asteazkenean, Berako 25 bat gazte Ibardingo Okalarre mendi-aterpea garbitzen aritu ziren, Berako Gazte Asanbladak deituta. Goizeko 9etan Beratik oinez abiatu eta egoera penagarri xamarrean zegoen refugioa pixkot txukundu eta gero, berendua egin zuten herrira itzuli aintzinetik.

**Zaldibobo**
taldearen kontzertua izanen da apirilaren 19an Pui ostatuan. Arratseko 11tan hasiko da, eta Erausian Gazteen Euskara Taldekoek antolatu dute. Talde honek berriki diska berria plazaratu du, eta gogoratu behar da Rikardo Abril eta Igor Telletxeak parte hartu dutela grabaketan.



© 631076 • BERA

AHORRO-BERRI
janaridenda
Legia 4 • BERA
Igande goizetan irekia

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • BERA

## LESAKA

# 508 milioi pezetako aurrekontua onartu zuen udalak

## PNVk bakarrik eman zuen aldeko botua

AITOR AROZENA

Udalak 508.782.000 pezetako aurrekontua izanen du aurten, udalbatzarrean PNVren aldeko botuarekin EAren abstentzioarekin eta HBren kontrakoarekin onartu zenez. Iazkoarekin konparatuz 138 milioiko igoera ekarri du. Andra Mari Erresidentziak berriz, 39.370.000 pezetako sarrera-irteerak izanen ditu.

Aurrekontu orokorrari dagokionez, irteera inportanteena inbertsioetan joanen da, 285 milioitik goitiko lanak eginen baitira. Hirigintza planeamenduan, 99 milioi Nabazko ur-banaketa lanetan inbertituko dira, 34 milioi Fraingo bidea moldatzen eta 9 milioi turismorako bidaxkak egokitzen. Azpiegitura lanetan 31 milioi erabiliko dira, gehienak Bittiria karrikaren urbanizazioko lehen eta bigarren fasean. Futbol zelai berriaren lanetara 65 milioi bideratuko dira eta 30 milioi su-hiltzaileendako nabe berri bat eraikitzera, erresidentziaren ondoan. Garrantziko bertze proiektu batzuk ere eginen dira aurten, hara nola, leku garapenerako agentzia baten sorrera eta mendi komunalen kudeaketarako Plangintza Teknikoaren idazketa.

Aurrekontua onartu aitzinetik eztabaida luzea eta gogorra piztu zen HB eta PNVko ordezkarien artean. HBk aurrekontuak *«bakarrik PNVrenak zirela»* erran zuen, zenbait proposamen aurkeztuz. Alkateak berriz, HBren proposamenek *«seriotasun gutti zutela»* eta alde guzietan diru sarrera-irteerak zehazki paratu behar direla erantzun zuen.



### V. Herri lasterketa igandean

Igande honetan, apirilak 13, burutuko da Lesakako V. Herri laisterketa, Batzoki elkarteak antolatuta, Nafarroako Rural Kutxa eta Herriko Etxearen laguntzarekin. Proba goizeko 10etan hasiko da aurrebenjamin mailan eta eguerdiko 12,30ak aldera hasiko da proba nagusia, 8 kilometroko ibilbidea izanen duena. Urtero bezala, adin guzietako ehundaka korrikalari espero dira igandean herrian. Partehartzea dohainekoa izanen da. Artxiboa

### flash

**Margo erakusketa Bereaun**

Pilar Vea-Murgia Goikoetxea margolariaren 27 oleo ikusgai daude Bereau jatetxean martxoaren 22tik apirilaren 22ra arte. 1974. urtean hasita hainbat erakusketetan parte hartu du margolari gipuzkoarrak.

**Jubilatu elkartea Ordiziara**

San Fermin jubilatu eta pentsionista elkarteak Ordiziara bidaia antolatu du datorren asteazkenerako, apirilak 16. Goizeko 7,30etan abiatuko dira eta gosaria Ordizian eginen dute, merkatua bisitatu bidenabarkoan. Bazkaria Zarauzen eginen dute. Txartelak 1.800 pezetan salgai egonen dira igandea bitarte.

### Amnistiaren Aldeko Astea burutuko da egunotan

Ortziral honetan, gaueko 10etan Arranon eginen den kontzertuarekin hasita, Amnistiaren aldeko Astea antolatu da. Kontzertuan *Fumas Iskariote* eta *Derover* taldeak aritu-ko dira eta mariskadaren zozketa ere eginen da. Larunbatean, plazan 10 orduko konzentrazioa iragarri dute antolatzaileek, goizeko 11etatik arratseko 9etara.

Datorren asteartean, apirilak 15, zine emanaldia izanen da Arranon, 7etan: «La agenda oculta» filma eskainiko dute. Apirilaren 17an, arratseko 8etan, Herriko Etxean preso ohiekin mahaingurua burutuko da, Senideak erakundearen laguntzaz.

Apirilaren 18an, ortzirala, Aste honetako ekitaldi nagusiari ekinen zaio. Gauez, kartzeletako martxaren irteera eginen da plazatik, herriko presoak bisitatu asmoz. Larunbatean Iñaki eta Patriziori bisita herrikoia eginen zaie, autobusa Murtzia eta Cuencan barna igaroko baita. Bidai honetara joateko izena ohiko lekuetan eman daiteke eta joan ezin duenarentzat ere laguntza bonoak salgai izanen dira. Amnistiaren aldeko Asteari akabera emateko, apirilaren 20an, igandea, arratsaldeko 8etan manifa abiatuko da plazatik.

KATTU
ostatu - jatetxea
Plater konbinatuak eta menuak
✆ 627573 • LESAKA

GRUPO ZURICH
ASEGURO OROKORRAK
Itzea, 4 — BERA — ✆ 63 07 63

Lurrindenda
Marian Mendiberri
Estetika
Beheko Plaza 8 ✆ 637791 • LESAKA

KIROLAK ZELA
Altzate 6, ✆ 63 05 98
BERA

## ETXALAR

# Landa-etxe guziak bete dira Aste Santuko egunetan

Eguraldia lagun izan dute bisitariek

PELLO APEZETXEA

Landa-turismorako egun seguruenetakoak bilakatzen ari dira Aste Santukoak. Landa-etxe guziak bete dira aurtengo Aste Santuko egunetan, nahiz eta etxeak lehen baino gehiago izan. Karrikan bertan, edo hurbilean direnak, eta urrunago, mendian eta oihanean sartuak daudenak. Hamalau etxebizitza dira gaur herrian landa-etxe bihurtuak, eta logelak bertze hiru etxetan. Aurten egin duen eguraldiarekin, esperientzi atsegina eraman dute, seguraski, etorri diren kanpotarrek.



**Larraburuko koadrila**

Meza Nagusian parte hartu eta Larrabururako ibilaldia. Han hamaiketakoa, salda eta zerbait lodixeagoa ere bai. Eta asteko kontuak. Lagun koadrila honek ez du hutsegiten. Arg.: Pello

### Mus jokoa mantentzen da

Bukatu berria da Larraburuan neguko 2. txapelketa, urdaiazpikoa sari duena, nahiz eta urdaiazpiko hori ez duen irabazleak jasotzen, baizik eta partehartzaile guzien arten jaten. Joan zen larunbatean izan zen afari hori, Larraburuan, zeinean parte hartu zuten, bai muslariek, bai partxislariek. Ez da, ordea, adintuen arteko gauza mus jokoa, ostatuetan ere maiz ikusten baita jokatzen, gazte eta gazte ez den jendea, asteburuetan, batez ere. Herriko Ostatuan ortziralero izaten da txapelketa, eta bertan afaltzea du saria irabazleak.

### Herria edertzen lan gehiago eginen da

Herria edertzeko zenbait lanen proiektua bukatu bada ere, INEMetik langabeei ordaintzeko ematen duten laguntza dela medio, herriko bertze bazter batzuk moldatzen segituko dute. Hala nola, Antsolokuetako garbitoki publikoaren ingurua, Arrosetik errekarako sarrera, Lagun-toki elkartearen lokal ondotik errekarakoa eta Etxeberria ondokoa.

### 121 milioi aurtengo udal presupostua

Onetsiak izan dira 1997. urte honetarako kontuak, inoren erreklamaziorik izan ez denez.

### Gimnasia taldekoak Iruñera

Joan den ortzegunean, apirilak 3, Iruñera joan ziren Larraburuko gimnasia taldekoak. Hainbat herriko taldekiderekin bildu eta, gimnasia erakusketa egin zuten, herrian egiten duten gimnasia-lanaren erakusgai. Arkupeak antolatua du, aintzineko urteetan bezala.

ALZURI
• Sukalde tresneria eta opariak
• Landare eta loreak
Tel.: 63 03 70 • BERA

SAROBE okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

«USOA»
NEKAZARI KOOPERATIBA
Ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tfnoa: 63 52 14
ETXALAR

TOP CLASS ENGLISH
INGELES AKADEMIA
Alan Leiper
ZUZENDARIA
ITZULPENAK: Ingelesa, Frantsesa
ITZULTZAILEAK: Hitzaldiak, enpresak, etabar.
ESKOLA LAGUNTZA
4 URTETIK AITZINERA • GAZTEAK • HELDUAK
Ikusentzuteko metodoak • Hango irakasleak • Udako ikastaroak
LESAKA • Bittiria Plaza 6, Behea • ✆ 989.702554
BERA • J. Caro Baroja 10, Behea (Eskolaren aitzinean)
ETXALAR • (Eskola zaharretan)

HERRIKO OSTATUA
Jatetxea
SAGARDOTEGI MENU BEREZIA
Txorizoa sagardo erara
Bakailu Tortila
Idi txuleta
Gasna, menbrilloa, intxaurrak
eta sagardoa nahi adina
Pertsonako 1950 Pta. (2 pertsona guttienez)
✆ 635290
ETXALAR
ASTEARTETAN ITXITA
Astegunetan afariak aurrez eskatuta bakarrik

ttipi-ttapa
6.400 harpidedun
22.000 irakurle
631188

## IGANTZI

# Administraria bereizteko probak berriz egin beharko dira

### Heldu den larunbatean Joxe Ripauren kontzertua Biltokin

OSKAR TXOPERENA

Bertze bizpahiru hilabete egon beharko dugu esperoan Herriko Etxeko langile berria aukeratu arte. Berrogeitabi hautagaietatik bakar batek ere ez zituen proba guztiak gainditu epaimahaikoen erranetan. Azken probara, proba psikoteknikora, alegia, bi bakarrik ailegatu ziren, baina ez zuten probak eskatzen zuen gutxieneko puntuaziorik lortzerik izan. Ondorioz, bide guztia ibili behar berritikan.



**Maiatzaren 3an eginen damendi ibilaldia Goizuetara. Joan den urtean joandakoak dira argazkikoak eta ez omen zuten batere gaizki pasatu.**

Argazkia: Oskar

### Bi bidai antolatu ditu Biltokik

Bi bidaia ditu antolatuak Biltoki elkarteak hurrengo astetarako. Apirilaren 26an Basarana etxea bisitatzera joanen dira. Etxe honek lagundu zuen mus eta partxis lehiaketa antolatzen eta izen ematea lehiaketa hauetan parte hartu zutenentzat dago mugatua. Apirilaren 20ra arte ematen ahal izanen da izena eta 1.000 pezeta bota beharko dira Biltokiko buzoian.

Aste bat beranduagorako antolatu dute Goizuetara urtero egiten den mendi ibilaldia. Martxoaren 23an izan genituen hemen goizuetarrak eta orain bisita itzuli behar diete. Apirilaren 28rako eman beharko da izena, buzoian 2.500 pezeta bota ondotik.

### Musika eta solasaldia Erausian taldearen eskutik

Bi ekitaldi izanen ditugu Igantzin Erausian Gazteen Euskara taldearen eskutik. Lehendabizikoa aste honetan izanen da, Joxe Ripiau taldeak eskainiko duen kontzertuarekin. Gaueko 10etan izanen da Biltoki elkartean.

Apirilaren 22an arratsaldeko 7etan, berriz, Esther Mugerza eta Amaia Elosegiren *«Bi emakume Turkiatik Birmaniara bizikletaz»* deitutako hitzaldi eta diapositiba emanaldia izanen da.

### Igantziarrak Gimnasia bestan

Hamabortz lagun joan ziren apirilaren 3an Igantzitik Iruñera, Arkupeak elkarteak antolatutako Gimnasia bestara.


XATURETXEA
JATETXEA
Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

EKAITZA kafetegia
GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA
Lagunekin elkartzeko toki egokia
Plaza Berria, 13 ☎ (948) 627547 LESAKA





LESAKA

LEGARRA
Legarrea, 9 • ✆ 63 70 30 • LESAKA
ESKAINTZAK
• A-Z artxibo txikia kutxarekin 390 pta.
• A-Z artxibo haundia " 425 pta.
• Fax-paper erroiloa 375 pta
• Fotokopiagailu papera 675 pta.
• "Pilot" boligrafoa 250 pta.
• Fastener Dossierra 75 pta.
ESKOLA MOTXILETAN
%10eko DESKONTUAK
Apirilaren 30a arte baliagarria


DROGUERIA MOLINERO
• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •
*Barne edo kanpoalderako behar dituzun pintura plastikoak*
Eztegara 19 • ✆ 63 02 40
BERA

## ☞ ARANTZA

# Mendi plantazioak egin dira Istringa alderdiko sei hektareatan

### Bertzalde, HBko Mahai Nazionala aske uztea eskatu du udalak

ELIXABET ETA GARBIÑE

Akautu berriak dira Istringa alderdian Herriko Etxeak burutu zituen mendi plantazioak. Inguru horretan sei hektarea itxi dira, hiru klasetako zerrakurak erabiliz. Gehien batean, dexente haunditu ziren arkazia batzuk moztu eta sartu dituzte, zuhaitz hauek berez ateratzen baitira. Honetaz gain, *«pinua, gereziondoa, eltzaurondoa eta haritz amerikanoa aldatu dugu»* erran du Jose Ramon Amoros alkateak. Lan hauekin bertze helburu bat ere bete nahi izan dute, *«mendia garbitzea, alegia»*.



Bere egoitzan burutu zuen urteko batzarra Bortzak Bat kooperatibak
Artxibokoa

#### HBko Mahai Nazionala aske uztea eskatu du udalak

HBko Mahai Nazionalaren kartzelaratzea salatu eta kide guziak libre uztea eskatuz aurkeztutako mozioak aho-batez onartu zuen udalak. udal batzar horretara Arantzaren Aldeko lau zinegotziak bakarrik agertu ziren, beraz, PNVkoek ez zuten mozioa bozkatzerik izan. Mozioak, *«Euskal Herria eta espainiar estatuaren arteko gatazkaren konponketa elkarrizketa eta Euskal Herriaren eskubideen onarpenaren bidez etorri beharko duela»* zioen, bertzeak bertze.

#### Bortzak Bat kooperatibaren urteko batzarrea

Martxoaren 16an, joan den urteko kontuen balantzea egiteko eta aurtengorako prestatutako aurrekontuaren berri emateko Bortzak Bat kooperatibakoek bazkari bat egin zuten Zahar Txokoan. Bertan berrogeitamar lagun bildu ziren eta junta aldaketa ere egin zuten. Jakina denez, elkarte honek Arantza eta Igantziko nekazariak biltzen ditu bere baitan.

#### Aste Santua

Bertze urte batez Aste Santua pasatu da. Bertako jendea kanpora atera da, baina bisitari ugari izan ditugu egun horietan herria bisitatzen. Beraz, giro politean igaro dira barkazio labur hauek. Elizkizunari dagokionez, Ortziral Santu eguneko prozesioa suspenditu zen, eguraldi euritsua zela eta.


IRU BIDE
ERRETEGIA
Tfnoa: 637127
LESAKA

Ibilaldiak:
– Ordu batekoak 1.500 pta.
– Bi ordukoak 3.000 pta.
– Lau ordukoak




Herriko Ostatua
Elgorriaga
Tel.: 45 05 92

Ibilaldia aintzin, zaldian ibiltzen esperientzia gabeei klaseak ematen zaizkie

Ibilaldi luzeak:
– Bat eta bi gauekoak: lo egiteko tokia, kanak barnean sartzen dira

ZALAIN
JATETXEA
Zalain Auzoa
© 63 11 06
BERA
EGUNEKO MENUA ETA KARTA
Boda eta banketeak ematen dira

LESAKA
Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena
Frexkuena zugandik hurbilago
Bittiria, 67 - © 637264

Aranguren
Aroztegi mekanikoa
Tel.-Fax: (948) 63 72 58
Tel.mug.: 908 -77 51 85
Otsango industrialdea
31770 LESAKA
• Leihoak
• Aurre-markoak
• Eskailerak
• Fabrikanteak gara

## SUNBILLA

# Arkupeak elkarteak antolatutako gimnasia ikastaroa akitu da

## Hogeitazortzi lagun bildu ziren despedida afarian

JOSUNE ETA ISABEL

Joan den urteko urrian hasitako gimnasia ikastaroa apirilean bukatu egin da. Bertan, 35 urtetik hasi eta 75 urte bitarteko ikasleak zeuden. Apirilaren 7an ospatu zuten ikastaroaren despedida, Ariztigain kanpinean egindako afari eder batekin. Hogeitazortzi lagun elkartu ziren, tartean Daniel maisua ere. Apirilaren 3an, berriz, erakustaldi bat egin zuten Iruñeko Anaitasuna frontoian. Han Nafarroako Gobernuko agintariak zituzten ikusle bezala eta Taishi izeneko erlajazio ariketak egin omen zituzten. Sunbillako 28 partaideak berdin-berdin jantzita zeuden, galtza beltzat eta Arkupeak elkarteko kamisetarekin. Ondoren Iruña Park jatetxean bazkaria izan zuten.



Aste Santuan jende ugari etorri zen herriko txokoak eta kanpinean eta landa-etxeetako eskaintzak aprobetxatzera Artxiboa

### Laugarren urtez sagardotegira

Sagardotegira joateko aukera izan da Sunbillan, laugarren urtez. Juanjo Ibarrak aurten ere autobusa antolatu zuen apirilaren 5ean Astigarragara joateko. Berrogeitamar bat herritar elkartu ziren, giro ederrean afaldu eta sagardoa nahi adina probatzera.

### Aste Santua inoiz baino jendetsuagoa

Aurten jende aunitz ibili da Sunbillan. Alde batetik kanpina hor dago, inguru ederrean eta jende ugari erakarri du. Bertzetik landa-etxeak ere badaude eta hor ere hirietako jendearen gustoa egiteko moduko eskaintza ematen dute. Herrikoei dagokigunez, ohikoa den bezala meza ugari izan dira eta aurtengoan, eguraldi euritsua zela eta, ez zen prozesiorik egin.

### Jaunartzeak apirilaren 27an ospatuko dira

Aurtengoan hamar neska-mutikok eginen dute lehen aldiz jaunartzea; bortz mutikoak eta bertze horrenbertze neskak. Honako hauek izanen dira, pausu hori emanen dutenak, apirilaren 27ko Meza Nagusian: Jon Alzuri, Ander Alzuri, Aitor Alzuri, Urko Ibarra, Xabier Arretxea, Jaione Agirre, Berexi Arrieta, Izaskun Espelosin, Beatriz Sanzberro eta Sara Sanzberro.

ALDABE
TAXIA
DONEZTEBE
© 450687

GAZTANDEGIA
Lizun
Etxeko
Ardi Gazta
Petxenekoborda • Tfnoa: 45 08 62 • SUNBILLA

Mari Cruz
LENTZERIA
Parrokia 11
Tfnoa: 45 01 12
DONEZTEBE

ARIN ASEGURUAK
• Kotxeak
• Kamioiak
• Etxebizitzak
• Enpresak
• Istripuak
• Bizitza
• Aurrezkia
• Bertzeak
Parrokia 21
Tel.-Fax: 450266
DONEZTEBE


CAMPING
ARIZTIGAIN
Bazkariak
Merenduak
Afariak
Zubizargaina baserria
© 948. 45 05 40
SUNBILLA

## DONEZTEBE



140 pilotari hasi dira Josetxo Ezkurraren omenezko txapelketan — Artxibokoa

# Josetxo Ezkurra zenaren omenezko zazpigarren txapelketa hasi da

### Zazpi kategoriatan 140 pilotari ariko dira

TXEMA ALDABE

Joan den martxoaren 26an hasi zen Josetxo Ezkurrra zenaren omenez egiten den txapelketaren zazpigarren edizioa. Ekainaren hondar aldera arte hortxe arituko dira adin guztietako pilotariak lehia bizian, finalera ailegatzeko norgehiagokan. Zazpi kategoria ezberdin, izanen ditu Txaruta pilota elkarteak antolatutako memorial honek: aurrebenjamin, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenilak eta helduak. Partidu guziak Donezteben jokatuko dira asteazken arratsaldetan, 5etatik 8etara eta larunbat goizetan, 10etatik aitzinera, helduak ezik. Hauek, astelehen, asteazken eta ortzegun ilunabarretan arituko baitira, 8etatik 10etara, hain zuzen ere. Denetara, 140ren bat pilotarik jokatuko dute arrakasta ikaragarria duen txapelketa honetan.

### Pala txapelketa

Pilota kontuekin segituz, aurtengoan hirugarren aldia da Erreka kirol taldeak pala txapelketa antolatu nahi duela, eta badirudi ospe edo prestigio gehiago eman nahi diola. Txapelketa maiatzaren 11n hasiko da eta Doneztebeko bestatan jokatuko da finala. Partiduak larunbat arratsaldetan jokatuko dira eta beharrezkoa balitz, igande goizetan ere. Izena emanen duten lehenbiziko hogei bikoteen artean osatuko dute txapelketa hau. Horretarako 450144 edo 450271 telefonoetara deitzea aski da. Aurtengoan sariak hobeak izanen dira, txapela eta trofeoaz gain, 40.000 pezeta, 20.000 pezeta eta 10.000 pezeta dirutan izanen dira lehenbiziko hiru sariak.

### Laxoa txapelketa

Azkenik, gogoratu Baztan-Errekako laxoa txapelketa hasi berria dela eta herrian hiru talde daudenez, astebuero partiduren bat ikusgai izanen da.

### San Miguel auzoko karrika moldatua

Hasiera batean hainbat gorabehera izan baziren bizilagunen artean eta Udalarekin ere, karrika moldatu dute. Ura hornitzeko tuboak sartu, toma berriak egin eta ur-zikinak bideratzeko tuboak paratu ondoren, brea bota dute eta berri-berri gelditu da. Karrika hau lehen bizilagunena bazen ere, orain publikoa izanen da, baina baldintza batekin: mugan dagoen poligonoko etxebizitza bakar batera ideki daiteke karrika eta hortxe akituko litzateke bidea, ezin du segidarik izan.

### Eskolako ttikittoen...

patioan motelgailu edo amortiguadorea paratuko da zolan. Horrela erabaki zuen Udalak Eskola Kontseiluak eskatu ondotik. Indargabetzaile hauek haurrek jostaketarako erabiltzen dituzten txirrista eta kolunpioen inguruan paratuko dituzte.

### Arte eta Kultura-97

616.000 pezetako aurrekontua onetsi zuen udalak joan den martxoaren 7an egindako plenoan. Nafarroako Gobernuak 300.000 pezeta inguruko laguntza emanen omen du.




APARAN, S. A.

BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-eremintak, etab...

Tel.: 450 133
451 541
Faxa: 450 334
DONEZTEBE

SANTAMARIA
Jatetxea
Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

IBARROLA
HAURRENDAKO ARROPA
MERTZERIA
Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 • DONEZTEBE

## MALERREKA

# Doneztebeko Babes Ofizialeko hamasei etxebizitzetatik bortz libre daude oraindik

### Apirilaren 30a arteko epea izanen da berriz eskaerak aurkezteko

TTIPI-TTAPA

Doneztebeko Ameztiako belagian egin behar diren hamasei etxebitzetatik bortz libre daude oraindik, udalak behin behineko adjudikazioak egin ondotik. Zehazki, 90 m² erabilgarri dituen etxebizitza bat gelditzen da Oizkoentzat, 58 metroko bi etxebizitza Donamariarentzat eta bertzea Oitzentzat eta 49 metroko bertze etxebizitza Donamariako bertze lagun batentzat. Beraz, Doneztebeko jendeari zuzendutako pisu guziak adjudikatu dira.



**Malerrekako etxebizitzaren arazoari aterabide bat emateko saioa da Donezteben egiten ari diren babes ofizialeko pisuak** Artxiboa

Bortz etxebizitza hauetarako eskaerak aurkezteko epea zabalik egonen da Doneztebeko Herriko Etxeko udal bulegoetan apirilaren 30a arte. Astegunez, goizeko 9etatik 2etara egin daiteke instantzien aurkezpena eta horretarako, lehendik aipatutako baldintza eta agiriak bete behar dira, bertzeak bertze, etxearen eskaera eredua, 1995eko errenta aitorpena, familia liburua, nortasun agiriaren fotokopia konpultsatua, IFZaren fotokopia konpultsatua eta bizileku eta hondasun higiezinen katastroaren egiaztagiria.

#### HAMEKA ETXEBIZITZAK BADUTE JABEA

Gainerako hameka etxebizitzak behin behinekoz eskuratu dituztenak (gehienak doneztebarrak) honako hauek dira: J.M. Romero Martin, J.J. Gastesi Ibarra, J.L. Arozena Gamio, C. Mitxeltorena Arraztoa, N. Ezkurra Sarratea, M.V. Eulate Etxegia, P.J. Iribarren Saldias, J.M. Goñi Baleztena, C. Larraburu Calzado, M.S. Galain Matxiañena eta A. Zunzarren Bañares.

# Zeramika egiteko labea egin eta inauguratu zen Zubietan

### Herrira bizitzera etorritako emakume batek egin du bere eskuekin

AINHOA MUTUBERRIA

Azken aldi honetan kanpotar aunitz, baserri bat alokatu eta Zubietara bizitzera etorri da. Nonbait ere haien gustokoa izan da gure herri hau.

Baserri hauetako batean zeramika egiten duen emakume bat dago. Badakigu arrunt lan gogorra dela buztin puska batetik platerak, potixak, eskulturak eta beste mila gauza sortzea. Abilidadea izan behar da, gero. Buztinari forma eman ondoren beroaldi ederrak pasatu behar izaten ditu erabilera eman ahal izateko. Hala bada, emakume honek, berak bakar-bakarrik egin zuen labea etxe aurrean. Arrunt polita atera zitzaion gainera.

Eta gero, labea inauguratzeko, lagunen artean bazkari bat egin baino ospakizun hoberik ez da. Hori bai, labea behar bezala inauguratzeko, egin ahalak egin behar dira txanpain botila lehendabiziko kolpean hausteko eta ez hirugarrenean. Hala ere, deskuido hori aprobetxatzen ahal da momentu on gehiago pasatzeko.

Hortik aurrera gauza bakarra gelditzen da, eta hori, juxtu-juxtuan zailena dela iruditzen zait: egindakoa saltzea. Horretako egiten dira erakusketak eta berehalaxe bat eginen omen du. Ea borondate onez...



**Azken urteetan jende asko etorri da bizitzera**

# BAZTAN IKASTOLA





*Euskaraz bizitzea nahi duzu*
*zure seme edo alaba?*
*Kalitatea, etorkizuna*
*hauen bila ari zara?*
*Ez pentsa gehio, zatoz agudo*
*jo ikastolan aldaba.*
*zure alaba eta semea*
*ekarri ikastolara.*
*Zuzen-zuzenki ikastolako*
*partaide izango zara*







## Matrikula apirilaren 7tik 18ra



BAZTAN BALLEKO UDALA

Ikastolen Elkartea

BAZTAN IKASTOLA

HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAKO
UDAL IKASTETXE PUBLIKOA

# BORTZIRIETAKO HIRI-HONDAKINEN MANKOMUNITATEA

# PILA, BEIRA ETA PAPER BILKETA SELEKTIBOA



### PILA BILKETA SELEKTIBOA




Mankomunitate honek laster **pilak biltzeko zerbitzua martxan jarriko du**, ingurugiroa babesteko neurriak ezartzen joateko helburuarekin. Horretarako, zure herrian, eskuin aldean ikus dezakezun modeloko zaborrontziak jarriko dira.

Jakina denez, pilek naturarendako material arriskutsu eta kutsagarrienetako bat dute.

Zure laguntza espero dugu ingurugiroaren defentsan.

### BEIRA BILKETA SELEKTIBOA

Era berean, Mankomunitate honek, zerbitzuak hobetzen joateko nahian, laster **beira biltzeko zaborrontzi modelo berri bat jarriko du**, kapazitate haundiagokoa, gaur egungoa ttikia geldítu baita eta ez baitu zerbitzu eraginkor bat emateko balio.



Beirazko botila eta edukinontziak sartu, beti ere tapa eta tapoirik gabe. Bonbilarik ere ez sartu.

### PAPER BILKETA SELEKTIBOA

ETA GOGORATU!

Zaborrontzian sartu aitzinetik ongi tolestu kartoiak.









# TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu

## DESKONTUAK

**AISIALDI AKTIBIDADEAK**
- BKZ ........ Bertiz

**AUTO TALLERRAK**
- MENDAUR MOTOR ........ Doneztebe
- SANPI ARAGON ........ Doneztebe
- PEDRO GARMENDIA ........ Elizondo
- DATUCELAY ........ Elizondo
- ZALAIN MOTOR ........ Bera

**AUTO-ESKOLAK**
- SEMPER ........ Bera

**ARGAZKI DENDAK**
- GOIKO ........ Bera
- AYLA ........ Bera
- MENA ........ Doneztebe/Elizondo
- ZALDUA ........ Doneztebe/Elizondo

**ARROPA DENDAK**
- SAIOA ........ Doneztebe
- J.J. PICABEA ........ Doneztebe
- TXIRRISTA ........ Doneztebe
- KAMAMILA ........ Doneztebe
- PICABEA BOUTIQUE ........ Doneztebe
- IPINGI ........ Elizondo
- COCOS ........ Elizondo
- KATTALINGORRIE ........ Elizondo
- FANTXIKE ........ Elizondo

**EDARI BANATZAILEAK**
- MANUEL TABERNA ........ Bera

**ELEKTROGAILU DENDAK**
- MARIXUS ........ Lesaka
- ALTZURI ........ Lesaka
- RADIO BIDASOA ........ Bera

**ESTETIKA ZENTRUAK**
- AMAIA ........ Doneztebe
- BEATRIZ ........ Elizondo
- MARIAN ........ Lesaka

**KIROL DENDAK**
- IPARLA KIROLAK ........ Elizondo
- ZELA KIROLAK ........ Bera
- AGARA KIROLAK ........ Bera
- Mª LUZ SPORT ........ Bera

**LENTZERIAK**
- Mª CRUZ ........ Doneztebe
- MAITE ........ Elizondo
- DEÑE ........ Lesaka

**LIBURUDENDAK**
- NAFARPRESS ........ Elizondo
- LEGARRA ........ Lesaka

**MOBLEDENDAK**
- AMAIUR ALTZARIAK ........ Doneztebe
- LEIZA ........ Elizondo

**OPTIKAK**
- OSTARGI ........ Bera

**ZAPATADENDAK**
- ALDI ROZAS ........ Bera
- NEREA ........ Doneztebe
- OSTIZ ........ Doneztebe

**Elizondo**
**DATUCEL**
**tallerrea**
**errate bater**
**bateria e**
**amortiguadoret**
**%15e**
**DESKONT**
**izanen duzu**



ESKATU BAT ZURETZAT

**...eta**
**Elizondoko**
**RENAULT**
**GARMENDI**
**%20ko**
**DESKONTU**
**olio-aldake**
**Eta horrela**
**bertze 42**
**komertzio**

✆ 631188

# "LEKAROZ-ELIZONDO"

Nafarroako Gobernua




ELIZONDOn

A, D eta B EREDUAK

## BATXILERGOAK

- *Tekniko Industriala*
- *Administrazioa eta Gestioa*

*IEE gaindituz*

## HEZIKETA ZIKLOAK *(Lanbide Heziketa Berria)*

### *ERDI MAILAKOAK*

- *Kudeaketa Administratiboa*
- *Mekanizatua*

*IEE gaindituz / 18 urterekin froga bidez*

### *GOI MAILAKOAK*

- *Administrazioa eta Finantzak*
- *Industri Ekipoen Mantenimendua*

*BTI / BAG edo UBI gaindituz sarrera zuzena*
*18 urterekin froga bidez*

## LANBIDE SARRERAKO PROGRAMAK

- *Soldadura eta Galdarigintza*
- *Bulego eta Merkataritza Laguntzailea*

*IEE eta BBB-2 ez gaindituta*

## HEZKUNTZA BEREZIA

**Informazioa eta Izenematea ✆ 580012**

# ...ARREN HEZKUNTZA INSTITUTUA



LEKAROZen

**DBH** *(Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza)*

- *1. maila*
- *2. maila*
- *3. maila*
- *4. maila*

**BBB** *(Balioaniztun Batxilergo Bateratua)*

- *3. maila*

**UBI** *(Unibertsitatera Bideratzeko Ikasturtea)*

**HEZKUNTZA BEREZIA**

*Informazioa eta Izenematea ✆ 580200*

# SAN FRANCISCO JAVIER Ikastetxe Publikoa

## • ELIZONDO •





**Matrikulatzeko epea:**
**Apirilaren 7tik 18ra**

**ESKOLA PUBLIKOA AURRERANTZ!**

# BERA eta LESAKAKO IKASTOLAK



**Matrikula epea zabalik**

LABIAGA IKASTOLA / ✆ 630172    TANTIRUMAIRU IKASTOLA / ✆ 637308

**KALITATEZKO HEZKUNTZA** *GUZTION ESKUBIDEA DELAKO*

**EUSKARAREN NORMALIZAZIOA** *BEHAR DUGULAKO*

# ESKOLA PUBLIKOA



3 urtetik 20 urterarteko ikasleentzat

## BORTZIRIETAN ETA DOHAINIK

Haur eta Lehen Hezkuntza:

*Bortzirietako HERRI ESKOLETAN*

Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak eta Lanbide Heziketa:

*Berako TOKI-ONA Institutuan*

Aurrematrikulatzeko epea: Apirilaren 7tik 18a bitarte

| | | |
|---|---|---|
| ARANTZA: Herri Eskola<br>☎ 634104 | IGANTZI: Herri Eskola<br>☎ 637829 | ETXALAR: Landagain E.P.<br>☎ 635215 |
| LESAKA: Irain E.P.<br>☎ 637827 | BERA: Ricardo Baroja E.P.<br>☎ 630684 | TOKI-ONA Institutua<br>☎ 630441 |


fiesta
Belaunaldi berria
TELLETXEA
TAILERRAK
✆ 948.450667
DONEZTEBE
ZALAIN
MOTOR
✆ 948.631157
✆ 908.778023
Ubelaldea - BERA
FIESTA
Ford


ORDOKI ALTZARIAK
Estilo ugariko mobleak
Kalitatea prezio egokian
ERAKUSKETA
Bittiria 30 eta Plaza Zaharra 26
SALTOKIA
Plaza Zaharra 27 • Tfnoa: 637034
LESAKA
LOGELAK · EGONGELAK · TRESILLOAK · KUTXAK · BESAULKIAK...

## LEITZALDEA







**Goiko argazkian Maider Ansa aranoarra bere ahizpa musikariekin. Behean Eneritz Arozena eta Saioa Taberna goizuetarrak eta ezkerrean, Joseba Urkiola leitzarra** Argazkiak: Joxemanuel

# Haur Kantu txapelketaren finalean eskualdeko abeslariak nagusi

Bakarlarien artean txapel bat eta bikoteka bestea eskuratu zuten

TTIPI-TTAPA

Euskal Kantuzaleen elkarteak hamargarren aldiz antolatutako Nafarroako Haur Kantari txapelketaren finalean ederki aritu ziren neska-mutiko abeslariak eta Gaiarre antzokira bildutako jendetza gustora atera zen. Jakina denez, kantari guztiek 15 urte baino gutxiago dute eta bi mailatan banatuak daude, txikiak eta gaztetxoak.

Bakarlari txikien artean Aranoko Maider Ansa izan zen onena, Maite Idirin, Amaia Zubiria, Mikel Markez eta Koldo Pastorrek osatutako epaimahaiaren arabera, Leitzako Joseba Urkiola bigarren suertatu zelarik. Bi hauek izanen dira ekainean Miarritzen egingo den Euskal Herria mailako txapelketan Nafarroako txikiak ordezkatuko dituztenak.

Maider Ansa, 11 urteko aranoarrak esan zuenez, *«eszenategira igo naizenean urduri nengoen eta ni baino hobeak bazeuden, beraz ez nuen espero»*. Txapeldun umila, dudarik gabe.

Joseba leitzarrak ere ez zuen espero eta beraz, *«oso pozik nago»*.

Bikoteka, ttikien artean Iruñeko Frantses Jatsuko ikastolakoak eta taldeka Lekunberrikoak nagusitu ziren.

### GAZTETXOEN ARTEAN, BIKOTEKA GOIZUETARRAK GARAILE

Gaztetxoen mailan, Lekunberriko Maria Baldak lortu zuen txapela bakarlari gisa. Bikoteen artean, Goizuetako Eneritz Arozena eta Saioa Taberna izan ziren garaile, Lekunberriko Amaia Balda eta Garbiñe Garaikoetxearen aitzinetik. taldeka Barañaingo Alaitz institutuko Lurmen taldearentzat izan zen lehen saria. Hauekin batera, epaimahaiak sari berezi bat eman zion Altsasuko ikastolako Katakrax taldeari.

### ANTOLATZAILEAK POZIK

Eugenio Arraiza, txapelketako antolatzaileetako batek adierazi zuenez, *«oso pozik gaude neska-mutikoek ekarri duten prestakuntza mailarekin, bai ahotsa bai ta erritmoei dagokienez ere»*. Bere ustez, maila hori bertze urteetan baino aunitzez hobea izan da, *«Gaiarrera ailegatu ez diren batzuk ere aski ongi prestatuak zeuden»*. Arraiza bereziki pozik zegoen bakarlariek erakutsitako ahots ederrengatik eta *«bertze urteetan parte hartu ez duten zonaldetako neska-mutikoak, hara nola Erribera eta Ilunberrikoak, aurten parte hartu dutelakoz»*.

Burukomin haundienetako bat kanporaketen lekuak zehaztea izaten omen dute, baina aurtengoan ez dutela hutsik egin uste du Euskal kantuzaleen elkarteko ordezkariek.

## GOIZUETA

# Inolako gorabeherarik gabe burutu zen Umore Onaren asanblada

Xalba Indakoetxea, Pello Telletxea eta Unai Miranda dira komisio-kide berriak

ESTEBAN AROZENA

Azkeneko urte hauetan gerta ohi den bezala, oso denbora gutxian eta inolako ustegaberik gabe burutu zen aurtengo Umore Ona elkartearen Asanblada Orokorra. Hamaika puntuk osatzen zuten eguneko aztergaien zerrenda, denak ohikoak. Batzuk aipatuz esan, bazkide berriak izan nahi duten lau herritarrek, bildutako guztien baiezkoa jaso zutela. Beraz, 1997an 191 sozio edukiko ditu Umore Onak. Komisiokide berriak ere hautatu ziren asanbladan. Horrela, Peio Telletxeak beteko du hurrengo bi urteetan lehendakari ordearen lekua; Xalba Indakoetxeak diruzainarena; eta Unai Mirandak bokalarena.

### Haur Kantu txapelketa

Iruñeko Gaiarren antzokian ospatutako Nafarroako Haur kantarien txapelketaren finalean irabazle suertatu ziren Eneritz Arozena eta Saioa Tabernak osatutako herriko bikotea eta Aranoko Maider Ansa bakarlaria.

Doneztebeko kanporaketan eskuratu zuten hirurak, finalerako txartela *"Maitasun hitzak"* kantarekin goizuetarrek eta Oskorriren *"Gaztelugatxe"*rekin Maiderrek. Bere ahizpek lagundu zioten honi, batak pianoa eta besteak gitarra joaz.



**Eneritz Arozena eta Saioa Taberna pozik, Gaiarren txapeldunen sariak jaso ondotik**
Argazkia: Diario de Noticias

Iruñeko finaletik kanpo gelditu ziren Goizuetako zenbait bakarlari, bikote eta talde. Biztanle kopurua kontuan hartuta kantari asko dituela erakutsi du berriro herriak.

## ARESO

# Pake-Tokiko mus txapelketaren finala jokatu zen

Kontxik eta Juliok irabazi zuten

JUANA Mª SAIZAR

Pake-Tokiko mus txapelketaren irabazleak hauek dira: Miguel Zabaleta eta Luis Layana. Txapeldunordeak berriz, Kontxi Marzol eta Julio Nieto.

### Emakumeen afaria

Emakumeen afaria ospatu zen aurten ere Larunbat Santu gauean. Bapo afaldu ondoren, dantzaldiari txanda eman zioten eta jolas pixko bat ere egin zuten, aulkiaren jokoa, hain zuzen ere. Dirudienez, erreflejoak hobekien dauzkana Txaro da, berak beti irabazi baitzuen.




**Eskolako neska-mutikoek gero eta osatuagoa dute liburutegia**

### Eskolako liburutegia osatzen

Eskolako liburutegia pixkanaka-pixkana osatzen hasi omen dira. Bi entziklopedia eta hiztegiak zeuden, eta orain Leitzako liburutegiarekin harremanetan jarri ondoren, aukera gehiago eta desberdinak izanen omen dituzte.

### Kometa bistan

Beste tokietan bezalaxe, Areson ere Hale-bopp kometa ikusteko aukera izan dugu. Oso ongi nabaritzen zaizkio bi isatsak eta 32 kilometro omen ditu, alajaina!

## LEITZA

# Leitzaldeko Zahar-Etxea herrian jartzeko proiektua prestatzen ari da Udala

250 milioitik gorako aurrekontua izanen luke

JOSEBA AZPIROZ

Leitzako Kultur Taldeak datorren asteburuकरako, herria eta inguruak ezagutarazteko zenbait ekitaldi prestatu ditu. Ostiralean, 12'25etan Karrape Irratian irratsaio berezia eskainiko digute. Bertan, herriko maketa baten zozketa eginen da. Iluntzeko 8etan, Leitzako mugari buruzko bideo-emanaldia eskainiko da Aurreran, Jose Miguel Elosegiren argibideekin. Igandean berriz, antolatutako mendi ibilaldian parte hartuz, inguruko izenak ezagutzeko aukera izanen dugu Elosegi eta Bixente «Motxene»ren azalpenekin. Goizeko 8etan plazatik abiatu eta honako ibilaldi toponimiko hau eginen da: Plaza-Trenbidea-Korteko borda-Uitziko Gaina-Errezume.

### Leitza-Berastegiko muga itxi da

Iragarri zuen bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak Berastegira igarotzen diren azienden jabeei isun gogorrak jartzen hasi zen. Horregatik, eta Leitzelarreko artzainen eskaera haintzat harturik, Udalak Leitza eta Berastegi arteko muga ixtea erabaki zuen. Gaur egun lan hori burutua da eta 4 kilometrotako itxitu horretan, 2.600 pikete enplegatu dira.



| | Behorrak | Behiak | Ardi/ahuntzak |
|---|---|---|---|
| ARITZ | 119 | 89 | 2.669 |
| AIZAN | 30 | 34 | 677 |
| URDOLA | 28 | 95 | 174 |
| Gainerantzeko mendietan | 44 | 37 | 3.490 |
| DENETARA | 221 | 255 | 7.010 |

### Larre sariengatik milioi terdi kobratuko du Udalak

Aurten 1.590.000 pezeta kobratuko ditu Leitzako Udalak larre sariarengatik (ur-belarrak). Urtero bezala, horren balioko minerala zabaldu da larreetan (800 kilo inguru). Udal langileek zabaldu dute traktorea ailegatzen den tokietan eta gainontzekotan auzolanez zabaldu da. Goiko koadroan ageri da larre bakoitzeko azienda kopurua.
Aritz eta Urdolako itxituak, bestelako erabakirik ez bada, maiatzaren 15ean irekiko dira.

### Bi urtetan bosgarren borda errea agertu da

Martxoaren 28an, ostirala, arratsaldeko 8 terdiak aldera, Inazio Bildarrazek Okabion zuen borda erre zen. Sutean, behoka bat, sei ardi, beste horrenbeste axuri eta oilo eta untxi batzuk hil ziren. Zaldi batek eta ardi batzuk erredurak jasan bazituzten ere bizia salbatzea lortu zuten. Inazioren ustez sutea ez zen bere gisa piztu, bordan ez baitu argi indarrik, ez du surik egiten eta ez du erretzen... Azken bi urte hauetan modu berean erretzen den bosgarren borda da hau.

### Ordezko udal diruzaina aukeratzeko zozketa publikoa astelehenean

Udal diruzaina sei hilabetez ordezkatzeko (maiatzaren 1etik urriaren 31 bitartean) lanpostua betetzeko aurkeztutako lau pertsonen arteko zozketa publikoa datorren astelehenean, apirilak 14, eguerdiko 12etan eginen da.

### Industrialdeko urbanizazio lanen 2. eta 3. fasea hasia

Pagozelai-Goizabal S.L. eraikuntza enpresari 32.931.641 pezetatan adjudikatutako industrialdeko urbanizazio lanen bigarren eta hirugarren faseetako obrak hasi berriak dira.

muñeca de Trapo



IRUN
Luis Mariano, 35
Tel.: (943) 62 52 55

ASTE SAINDUA BITARTE



Basa Kabi baserrian bihurtu da.
Baserriko menua..................2.200 pta.
Sagardotegiko menua...2.950 pta/per.
Banabar jatea ....................1.900 pta.
Basa Kabi
Tel. 510125 • Faxa: 610965
LEITZAko gaina

GAZTELU ITURGINTZA
KALEFAKZIOA
Elgoien 32
Tfnoa: 51 00 86 • LEITZA

ETXANDI
TXOKO
jatetxea
Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN
Tfnoa: 45 04 91



BEINTZAko OSTATUA
Tfnoa: 45 00 14
BEINTZA-LABAIEN

ttipi-ttapa
6.300 harpidedun
22.000 irakurle

## BAZTAN

# Azpiroz eta Saralegi enpresak eginen ditu zolaberritze eta bide moldatze lanak

Bertzalde, apirilaren 19an, Flaco Jimenezen kontzertua Elizondon

JOSEBA IGARABIDE

Baztango udalak Azpiroz eta Saralegi eraikuntza enpresari adjudikatu dio zenbait auzo eta karriketako zola berritze eta bideak moldatzeko lanak.

Zehazki errateko, Erratzuko Gorostapolo, Azpilkuetako Apaioa eta Urratsun eta Elbeteko Karrikatxar karriketako zola berrituko da. Azpiroz eta Saralegi enpresak 57.544.939 pezetan eginen ditu lan hauek, Udalak ezarritako hasierako prezioa baino (73.539.858 pezeta) dexente gutiago. Lan hauek egiteko lau enpresen eskaintzak aurkeztu ziren eta onartutakoa da egokiena Balleko Etxearen ustez.

Bertzalde, zenbait herritako bideak ere enpresa berak moldatuko ditu: Amaiurko herriko bidea, Erratzuko Apote zubia, Azpilkuetako Zuaztoi auzoko eta Elizondoko Iturriaga auzoko bideak moldatuko dira eta Iruritan pareta bat eraikiko da. Lanok 56.267.075 pezetaren truke eginen dira, hau ere Balleko Etxeak hasierako prezioa bezala ezarritako 75.627.789 pezetatik dexente beheitiago. Lan hauek egiteko prest zeuden zortzi enpresen proposamenak aurkeztu ziren Balleko Etxean.



**Iruritako Gure-Kaiola elkarteko XX. mus txapelketa**

Joakin Obregozo eta Tiburzio Dorregarai suertatu ziren garaile Iruritako Gure-Kaiola elkarteko mus txapelketaren hogeigarren edizioan. Guztira hamasei bikotek parte hartu zuten eta finalaren ondotik, nola ez, afaldu eta sariak banatu zituzten

### Flaco Jimenezen kontzertua apirilaren 19an Elizondon Xorroxinen eskutik

Bederatzirehun pertsona inguru sartu ziren Xorroxin irratiak Erratzun Larunbat Sainduan antolatutako kontzertuan. Arrakastaren ondotik, orain apirilaren 19an, Flaco Jimenezen kontzertua prestatzen ari dira. Mexikarrarekin batera, Tapia eta Leturia Band eta Otsondo 602 taldeak arituko dira.

### flash

**Donostiako Horma Palaziora** ateraldia antolatu du larunbat honetarako, apirilak 12, Baztango patinaje eskolak, Nafarroako Gobernuaren laguntzaz. Informazioa jaso edo izena emateko Arizkunenea Kultur Etxeko kirol bulegora gan behar da (581279 telefonoa).

**Iruritako** Pedro Dorregarai Organbide, 30 urteko gaztea, martxoaren 29an hil zen traktorean izandako istripu baten ondotik. Pedro Kontinean bizi zen, baina Alemankobordan ari zen lanean.

**7.806 biztanle** zituen Baztanek joan den urteko maiatzean egindako errroldan. Horietatik 3.969 gizasemeak ziren eta gainerako 3.837ak emakumeak.


JATETXEA
Tfnoa: 580101
Santiago 1
ELIZONDO
Galarza

GAS KAITZ fontanería calefacción
Empresa colaboradora de REPSOL BUTANO
Era guzietako instalazioak: Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

BODEGAS ERRASTI, S.L.
Bodegas Gailur
ARABAR ERRIOXAKO ARDOAK
GETARIAKO TXAKOLINA
Zonarako banatzailea
TXOPORRO Ardoak
M. Azpilkueta, 6 • ELIZONDO
✆ 58 02 78

BAZTAN FUNERARIA
EHORZKETA ZERBITZUAK • HILKUTXEN ERAKUSKETA ETA SALMENTA • TRASLADOAK
Jaime Urrutia 53 • ELIZONDO
Tfnoak: 580373 • (908) 776176

ERLOJU eta BITXI DENDA

ARRIETA

KIROL TROFEOAK
Tfnoa: 580 445 - ELIZONDO

## BAZTAN

# Udako kanpaldiak antolatu ditu Euskara Zerbitzuak Bidarraien

### Izen-emateko epea apirilaren 18an akituko da

TTIPI-TTAPA

Gan den urtean bezalaxe, aurten ere Baztango 30 neska-mutiko Bidarraien kanpaldiak eginen dituzte uztaila eta abuztuan. Haurrak bi adin multzotan joanen dira, alde batetik 6 eta 10 urte artekoak eta bertzetik 11 eta 14 urtekoak. Txandak astebetekoak izanen dira, astelehenetik astelehenera, batean haur tikiak eta bertzean haundiak ganen dira.

Izen emateko epea zabalik egonen da apirilaren 18a artio eta horretarako Euskara Zerbitzura gan behar da. Kanpaldi hauen egiazko prezioa haurreko 31.000 pezetakoa baldin bada ere, Baztangoek 14.000 pezeta ordaindu beharko dituzte, Balleko Etxeak eta Nafarroako Gobernuak laguntza emanen baitute. Aurten Europatik ez da laguntzarik ailegatu. Seme-alaba bat baino gehiago badoaie, ordea, bakoitzagatik 10.000 pezeta bertzerik ez da ordaindu beharko.



**Hogeitamar neska-mutiko Bidarraira ganen dira uztaila eta abuztuan. Han burutuko dituzten kanpaldietan ederki pasatu ahal izanen dute, euskaraz solastuz, gainera** Artxiboa

## 'Hamabi ordu euskaraz' ekitaldia antolatu dute maiatzaren 4rako Baztango dantzariek

*«Hamabi ordu euskaraz»* maiatzaren 4ean ospatuko da Elizondon, Baztango dantzariak antolatuta. Joan den urtean bezalaxe, egitarau zabala izanen du eta horren berri emanen dugu hurrengo aleetan. Halere, aurrerapen gisara aipatu behar da Luis Luciano Bonaparte eta Bruno Etxenikeri buruzko antzerki lana eskainiko dela, *«honela, ixtent batez joan den mendera gibeleratuz»*. Antzeslan horretarako jendearen partehartzea eta laguntza eskatu dute, aitzinako edo garai bateko arropak eskatuz. Norbaitek honelako jantzirik balu, Xorroxin irratira (581226), Ainhoa Bielari (453213) edo Irantzu Izetari (580292) telefonoetara deitu, lehenbailehen.

## flash

**Aste Sainduko** egunetan bisitari aunitz izan ditugu Baztanaldean. Erratzuko kanpinean egon diren gehienak Euskal Herria bertakoak ziren. Landa-etxeetan berriz, Euskal Herriko jendeaz gain, Katalunia, Valentzia eta Madrileko aunitz ibili omen dira.

**Udaberriko Ferian** animazio ederra izan zen joan den ortzilerien. Bigarren aldiz egin dute aurten aintzinako feria hau berreskuratzeko eginahala, udazkeneko feriako masifikaziotik ezberdindu asmoz.

**SOS Arrazakeria** erakundeak tailerrak burutu ditu Iruritako elizako bulegoetan. Hamabortz eta hamazazpi urteko neska-mutilek parte hartu dute.

**Iruritako Kulturaldia** apirilaren lehen egunean abiatu zen. 17 zakur aritu ziren zakur-lera laisterketan Apoten barna. Biharamonean diapositiba emanaldia eta pilotari buruzko solasaldia izan ziren.

IPINGI
ZATOZ ETA IKUSI
Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO
UDABERRIKO ARROPAK
NOBEDADEAK
BIKINI eta BAINUJANTZIAK

EGUN NABARMENAK AHAZTEZINAK EGITEN DITUGU
FOTO MENA
KALE NAGUSIA 4
TEL ETA FAX: 45 08 25
DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40
TEL: 58 01 55
ELIZONDO
ZURE JAUNARTZE EGUNEKO ARGAZKI HOBERENAK
ESKATU ORDUA

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA
Asteartetik ortzilera 8etatik aitzinera! Larunbata eta besta egunetan zabalik.
✆ 45 21 21 • LEKAROZ

## SARA

# Idazleen Biltzarrak gaitzeko arrakasta ukan zuen

140 bat idazle bildu ziren Pazko Astelehenean

JACQUELINE ETA MIXEL

Euskal Idazleen Biltzar hau, ohidura atxikiz, Pazko Astelehenez egin zen eta 140 bat idazle hor ziren beren lanak aurkezteko. Denak ez baitira aipatzen ahal, azpimarratzekoa da Ur Apalategi Idirin. 24 urteko gazte honek *"Gauak eta hiriak"* izeneko eleberria idatzi du eta bere mahainaren inguruan euskaltzale ainitz ibili zen. Hitz laburrez emaiteko, eleberri hau oraingo garaiari lotua da, herabetasun gehiegiari uko eginez.

Bertze aipamen bat, hau saila desberdin batean, Sarako Jacques Antzek egin duen liburuxka frantsesez: *"Les chapelles eta oratoires de Sare"*, hau da, Sarako kaperak eta otoiztegiak.

Azken aipamena egitekotan, ezin ahantz Piarres Xarriton euskaltzainak arratsaldean Herriko Etxean eskaini zuen mintzaldia. 1945 eta 1970. urteen arteko denboraldia aipatu zuen, garai horretan eskual literaturak emandako lanen berri emanez. Beraz, denetarik ukan zuen aurtengo Biltzarrak.



### Beti Gazte elkarteko lehendakaritza utzi du Manex Bergarak

Beti Gazte elkartearen biltzar nagusia martxoaren 19an iragan zen Pullman jatetxean, 100 bat kide biltzen zirela. Elkartea sortuz geroz zazpi urte hauetan buruzagitza segurtatu duen Manex Bergarak bere lekua utzi dio Jeannot Elizagoieneri. Manexek bere erabakia bertsoen bidez azaldu zuen. Bi bertso horiek alde honetako «Bota bertsoa» sailean atxikiko dituzue.

Artxibokoa

### Frantziako mus txapelketaren finalean Sarako bikotea

Frantziako mus txapelketari doazkion finalak Pazko egunean burutu ziren Parisen.

Hogeitamabi bikote hasi ziren final hamaseigarrenak jokatzen zituztela. Final laurdenak arte Euskal Etxean aritu ziren eta bazkal ondoan, Pariseko trinketean jokatu ziren finalerdiak eta finala.

Txapeldun suertatu ziren muslariak, Donibaneko Jacques Lekuona eta Jean Marc Pascassio. Saratik ere bazegoen bikote bat, Sabine Tapia eta Alain Lamothek osatutakoa. Hauek hogeitabosgarren postuan gelditu dira sailkapen orokorrean. Halere oroitzapen ona ekarri dute Frantziako hiri nagusitik eta hurrengo txapelketan ere parte hartzeko asmoa azaldu dute.

**MENDIALDE Jatetxea**
Etxeko gasnak saltzen ditugu
Dantxarinearako bidean, 66. km.
AMAIUR • Tfnoa: 45 30 60

Baztanen... ESTHER
24 orduko zerbitzua
LOREDENDA • GARDEN CENTER
ESTHER FUNERARIA
Hilkutxak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak
Beztitzeak, etab...
Eta Iruñean...
IRACHE TANATORIOA
Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54
Telefono mugikorra: 989. 706614
Erripide Nagusia • Tfnoa: 592200 • NARBARTE
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 580668 • ELIZONDO

TIBURCIO GOIENETXE ETXEBERE
ANZABAL
AGENTZIA
**Salmentak**
• BERA:
- Moldatu beharreko etxea, bere lur eremuarekin.
- Lur eremu industriala
- 3.000 m²ko lur eremua, famili bakarreko etxebizitza egiteko egokia.
• IGANTZI:
- Etxea lur eremuarekin. Estreinatu gabea. AUKERAKOA.
• ARANTZA:
- 3.200 m²ko lur eremua, herriaren ondo-ondoan. AUKERAKOA.
• ORONOZ-MUGAIRI:
- Pisu bikaina, sukalde ekipatua, 3 logela eta egongela. AUKERAKOA.
BORTZIRIETAN etxeak, baserriak, bordak edo eraikitzeko lurrak erosiko nituzke
Errentan emateko pisuak, etxeak, baserriak eta lur eremuak BEHAR DITUGU.
SANTIAGO 15 - Tfnoa eta Faxa: 580804 - ELIZONDO

MENDI OSTATUA
Santiago 25 - ✆ 580313
ELIZONDO

ARLA ARDOTEGIA
Ardoak • likorrak freskagarriak
Santiago 56 • ELIZONDO

Eskisaroi jatetxea
Jaime Urrutia, Tfnoa: 580013
ELIZONDO

ADINEKOAK

# Arkupeak elkarteak hainbertze bidai antolatu ditu

## Lourdesera eta Benidormera, erraterako

TTIPI-TTAPA

Arkupeak elkarteak, eskualdeko erretiratu eta pentsionista gehienak biltzen dituen elkarteak, alegia, maiatzaren 1erako Lourdesera bidaia antolatu du. Horretarako izen emateko epea akitzeko punttuan dago eta txartelak 3.000 pezeta balio du.

11etan Arkupeak taldearentzako meza izanen da St. Joseph kaperan. 1etan Acadia eta Florida hoteletan bazkalduko dute. Arratsaldez arrosarioa errezatuko dute St. Joseph kaperan eta arratsaldeko 4,30etan erien prozesioaren ondoren autobusen irteera, hotelen atetik.

Arkupeak elkartearen nahia *«geure gaixoak eramatea da, denok elkarrekin bidaia honetan parte har dezagun»*. Bere baliabideez ibili ez daitezken pertsonen kasuan, bidaiaren kostea elkarteak berak ordainduko du. Beti ere gaixoaz arduratuko den senide bat joan beharko du.

### HAMABORTZ EGUNEZ BENIDORM-ERA

Maiatzaren 17tik 31ra berriz, Benidormera joateko intentzioa dute, hamabortz egun zoragarri pasatzera.

Maiatzaren 17an goizeko 6,45etan abiatuko dira Irundik, bidaiariak errepide nagusia igarotzen den herrietatik hartuz. Baztangoei izen eman ondotik erranen zaie non bildu-ko dituzte eta Leitza eta Goizuetakoak berriz, Doneztebera joan beharko dira. Joan-etorrian bazkaria bidean eginen da, jatetxe batean. Pertsonako prezioa 45.500 pezetakoa izanen da logela bikoitzetan. Bakarka, berriz, eguneko 850 pezeta gehiago ordaindu beharko dira. Dirua ordaintzeko egunak apirilaren 10, 11etatik etara izanen da.



**Adineko jendea bere saltsan ibiliko da berriz ere**


**ADOS**
*Julian Izura Nuin*
Telefonoak: 451841 • 908. 77 76 96 • Parrokia 9, bajeran
***Lekuz aldatu gara!!!***



**Bera.** • Etxe osoa salgai, ostatua barne



**Narbarte.** • Etxe bakarrean pisua salgai, bere baratzearekin.



**Doneztebe.** • Pisua salgai, Elizagibela karrikan.



**Ituren.** • Etxea eta 2.000 m²ko lur eremua salgai.



**Igantzi.** • Etxe adosatua salgai.



**Doneztebe.** • Pisua salgai Parrokia karrikan.



**Lesaka.** • Azken bi etxe adosatuak salgai.



**Elgorriaga.** • Etxe adosatua salgai.



**Bera.** • 200 m²ko bajera zatigarri bat salgai.



**Legasa.** • Etxea baratzearekin salgai.



**Mugairi.** • Pabilioi industrialak salgai. 43.000 pta/m²tik goiti.



**Oronoz-Mugairi.** • Pisua salgai.



**Luzaide-Valcarlos.** • Borda bere belagiarekin salgai.

## EZKONTZAK

**Jesus Mª Arruti Galarza** eta **Begoña Arozena Larralde**, Oiartzun eta Lesakakoa, martxoaren 22an.
**Amaia Irazoki Romero** eta **Jose Miguel Irigoien García**, Berakoak, martxoaren 15ean.
**Fernando Alvarez Astaburuaga** eta **Mª Aurora Escales Aranaz**, Paris eta Irungoak, martxoaren 22an.
**Pedro Mª Zaldain Indaburu** eta **Mireia Bautista Mora**, Elizondokoak, martxoaren 30ean.
**Daniel Mitxeo** eta **Rosa Etxeberria Telletxea**, Gaztelu eta Igantzikoa, martxoaren 8an.

## JAIOTZAK

**Bittor Etxabide Sagarzazu**, Lesakakoa, martxoaren 18an.
**Lea Etxeberri**, Sarakoa, martxoaren 14ean.
**Egoitz Eizagirre Burlada**, Berakoa, martxoaren 14ean.
**Irati Garaiar Ara**, Berakoa, martxoaren 14ean.
**Jon Zubiri Azanza**, Arizkungoa, martxoaren 16an.
**Asier Bertiz Gaztelumendi**, Elizondokoa, martxoaren 18an.
**Nerea Aizpuru Etxeberria**, Elizondokoa, martxoaren 29an.

**ZORIONAK!**
**Gure oparia ematean lehenak izan nahi dugu**



Haurttoa jaio izan eta berehala etor zaitez Iruñeko Kutxara. Saskitxo-aldatzaile hau, haur-garbiketarako produktuez betea, emango dizugu.

**Ez ahantzi familiaren liburuxka!**

IRUÑEKO KUTXA 125

## HERIOTZAK

**Suzanne Le Burlu**, Sarakoa, martxoaren 19an, 80 urte.
**Jean Daniel Albistur**, Sarakoa, martxoaren 27an, 27 urte.
**Mª Dolores Matxikote Mikelperizena**, Berakoa, martxoaren 19an, 64 urte.
**Joaquín Ariztegi Iriarte**, Berakoa, martxoaren 23an, 47 urte.
**Petra Eusebia Oteiza Garcia**, Elbetekoa, martxoaren 28an, 99 urte.
**Jose Elizainzin Sarratea**, Zigakoa, martxoaren 23an, 91 urte.
**Justo Etxeberria Irungarai**, Azpilkuetakoa, martxoaren 25ean, 84 urte.
**Felipa Orbara Ansorena**, Elizondon, apirilaren 1ean, 87 urte.
**Pedro Dorregarai Organbide**, Iruritan, martxoaren 29an, 31 urte.
**Jose Manuel Sarratea Arrupea**, Doneztebekoa, martxoaren 29an, 67 urte.
**Pedro Zugarramurdi**, Doneztebekoa, martxoaren 29an, 82 urte.




**Bidali**
TTIPI-TTAPA
**herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

**✆ 631188**

**FUNERARIA ZERBITZUAK**
**DONEZTEBEn**

**MALDAERREKA, S.L.**

24 ordutako zerbitzua
Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

koxkonta



*Sagardotegia zabalik*

*Deitu erreserbak egiteko*

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • **LESAKA**



**Luis Rekarte Iñarrea**
erratzuarra
otsailaren 24an
hil zen, 22 urte
zituela

***Gure herriko gazteen artean***
***leku bat dago hustue***
***bidaia luzea hasi baituzu***
***hain adiskide prestue***
***Agurrik ez Luis, oroitzapen bat***
***betiko dugu piztue***
***inder gehiagoz entzunen dugu***
***orain zure ziztue.***




# Iazko ekitaldien balorazioa egin dute antolatzaileek

Alde positiboen artean, bertako artisau eta dantza taldeak kontutan hartu izana baloratzen dute; negatiboen artean, berriz, aktibitateak soilik turistentzat prestatu izana

Joan den udan, abuztuaren 1etik irailaren 1era ospatu ziren Cultur 96ren egitarauaren barnean prestaturik zeuden ekitaldiak, eta orain, berandu xamar bada ere, ekimen haren balorazioa bidali digute antolatzaileek. Gogoratu behar da Bianako Printzipea Erakundea eta Bertizko Turismo Patzuergoa ibili zirela antolakuntza lanetan, Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Hilabete horretan zehar jorratu ziren ekimenak Bera eta Elizondo artean banatu ziren, eta udako garai horietan gure herrietara hurbiltzen diren turistei bideratuak zeuden. Balorazio txostenean aipatzen dutenez, bertako kulturaren erakusketa egitea zen helburu nagusia.

Musika arloan 11 kontzertu eman ziren, eta honako ondorioa ateri dute antolatzaileek: entzuleek ez dute musika kultoa apreziatzen jakin. Etnologiaren inguruan, Herri Kirolak (4 erakusketa), dantzak (5), artisautza (2) eta bertako tresnen 4 exposizio egin ziren, eta balorazio positiboa egiten dute, erraterako, fanfarrearen atzetik jende aunitz ibili zela azpimarratzen dute.

Bertzetik, 4 zine emanaldi eta "Bidasoaldeko paisajistak, gaur" izeneko margolari erakusketa ospatu ziren.

Ekitaldi guzti hauetara agertu den jende kopurua 7.555 pertsonatan kokatu dute, eta banaketa hau egin dute, hurrenez hurren: Etnologiaren inguruko ekitaldiek 4.900 pertsona bildu zituen, Musika aditzera hurbildu zirenak 1.060 izan ziren, Zinera 210 pertsona agertu ziren, eta bukatzeko, 1.385 bixitari izan zituen margolarien erakusketak.

Aurtengo ediziorako antolatuko diren ekitaldiak hobetzeko, joan den urtean egin ziren akatsak eta kontutan hartu beharreko faktoreak zehaztu dituzte txosten horretan:

-Asteko egun guzitan ekitaldiak paratu beharrean, 3 egunetan egitea hobe izanen litzateke, eta horrela ekitaldiak errepikatzea ekidingo litzateke.

-Bera herrian, turistak gelditu gabe pasatzen omen dira, eta beraz, ez litzateke kokagune egokia izanen. Gainera ekitaldiak ospatzen diren sedeen dispertsioa (Bera-Elizondo) negatiboa da.

-Turismoa helburu nagusitzat hartu izana akats bat izan zela onartzen dute.

-Elizako emankizunetara jende guttiago agertu da, ez da leku egokia ekitaldiak ospatzeko.

-Ongi asmatutakoen artean, ordutegia azpimarratzen dute euren balorazioan, eta baita bertako dantza eta artisau taldeei aukera ematea ere.

## Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala igandean

Sunbillako frontoian arratsaldeko 4,30etan

Igande honetan, apirilak 13, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera burutuko da Nafarroako Bertsolari txapelketaren finala Sunbillako frontoian. Hau idazterakoan, Kexux Arzallus, Bittor Elizagoien eta Estitxu Arozenak eskuratua zuten bertan aritzeko txartela. Asteburu honetan Lekunberri burutu beharreko finalerditik aterako dira gainerako bortz finalistak.

## Kultur ekitaldi ugari Baztanen

Olografia erakusketa eta haurrendako antzerkia

Apirilaren 15erarte luzatuko da olografia erakusketa hau, eta bertan hiru dimentsiotako irudiak izanen dira ikusgai. Arizkuneneara hurbiltzen den guziak animalia, pertsona eta ber-tze hainbertze irudiren perspektiba berexiak ikusiko ditu. Ikuskizuna *Prisma 3* enpresari alokatu zaio, eta arratsaldeko 6,30etatik 8,30etara zabalik egonen da.

Bertzetik, Elizondoko kultur Zerbitzuak haurrak ere burutan izan ditu, eta apirilaren 24ean haurrendako antzerki saioak prestatu dituzte Teatro Paraíso taldearen eskutik. "Bihotz-bihotzez" izena du eskeiniko duten obrak eta San Fco Javier eta Baztan ikastolan burutuko dituzte antzerki emanaldiak.

**TTIPI TXARTELArekin dirua irabaziko duzu**

Baztan, Bortziriak eta Malerrekako 40 komertzio eta zerbitzuetan sekulako deskuentoak egiten dizkiote dagoenekoz TTIPI TXARTELA duten erosleei.
Ez galdu aukera.
Eskatu bat zuretzat.

✆ 631188

# Baztan-Errekako laxoa txapelketaren XVIII. edizioa hasi da

- Bertizko Turismo Partzuergoa izanen da babesle nagusia
- Eguraldiak laguntzen badu finala ekainaren 22an jokatuko da

AITOR AROZENA

Martxoaren 30ean jokatutako lehen jardunaldiarekin hasiera eman zaio aurtengoan hemezortzigarren edizioa beteko duen Baztan-Errekako laxoa txapelketari. Txapelketa berri honetan hamar talde arituko dira lehian, joan den urtean baino hiru gehiago eta aspaldixko honetan izan diren gehienak. Azken urteetan ez bezala Elizondok taldea ateratzeaz gain, Doneztebek eta Iruritak hiruna aurkeztuko dituzte, bi Oitzek eta Arraiozek bertzea. Joan den urtean parte hartu zuen Zubigorri taldea berriz, desagertu da.

Bertizko Turismo Partzuergoaren babesa izanen du laxoa txapelketak lehen aldiz, *«aitzinako kirol honi eusteaz gain, turismo mailan ere ekitaldi interesgarria delakoz»*, Manolo Lizardi gerenteak txapelketa aurkezteko emandako prentsaurrekoan errandakoaren arabera.



Laxoa txapelketaren aurkezpena Bertizko Turismo Partzuergoko lokalean egin zen, erakunde hau izanen baita babesle nagusia Argazkiak: Aitor

Azken urteetan baino talde gehiago izan arren, iaz baino partidu gutiago jokatuko direla aipatu zuen Tiburtzio Arraztoa, Laxoa elkarteko lehendakariak, ez baita liga moduan jokatuko. Bosteko bi multzotan banatu dira taldeak. Ligaxka moduan jokatu ondotik, multzo bakoitzeko bi lehenak sailkatuko dira ekainaren 8 eta 15ean jokatu diren finalerdietarako. Finala, berriz, ekainaren 22an jokatuko da.

Laxoa elkarteak, nagusi honetaz gain, bertze bi txapelketa antolatuko ditu uda aldera, haundien Kopa lehiaketa eta gazte mailako txapelketa.

### Nazioarteko pilota topaketa abuztuan

Txapelketak antolatzeko 700.000 pezetako aurrekontua izanen du Laxoa elkarteak. Luzeko Nazioarteko pilota topaketa ere antolatzeko asmoa dute abuztuko aste batean Baztan eta Malerrekan. Belgika eta Valentziako ordezkariekin batera, Baztan-Bidasoako taldea plazaratuko da.

Esku pilotan izandako berrikuntzei atxikiz, laxoa txapelketan ere arropa berria izanen dute aurten, Bertizko Partzuergoaren logotipoarekin. Kamiseta eta kartelaren diseinua Elizondoko Itziar Menak gauzatu du.



## ☞ ELIZONDO

### Urteen ondotik berriro plazan



*«Jendea biltzea zaila da Elizondon»* Andres Burgete jokalariak adierazi zuenez. Urtetan talde bat osatu nahian ibili ondotik (joan den urtean hiru bildu ziren, baina laugarren jolakalaririk ez zuten topatu), aurtengoan lortu dute, oiztarrei Bittor Anso *«kendu»* baitiote. *«Orain ikusiko dugu zer pasatzen den»*.

## ☞ ARRAIOZ

### Lehen partiduetan plazarik gabe



Arraiozko taldeak ezin izanen ditu etxean jokatu hasierako partiduak, plaza moldatzen ari baitira Luis Miguel Mortalenak gogoratu zuenez. *«Frontoi estalia egin zutenean kalte dexente jaso zituen eta orai auzolanean moldatzen ari dira. Ormigoia bota dute eta laister lurra eta belar hazia botako dutela uste dut»*.

## ☞ IRURITA

### Hiru talde txapela berreskuratu nahian



Talde bat izatetik hiru izatera pasatu da aurten, batez ere azken urteetan erremontean entrenatu duten gazteak laxoara itzuli direlako, Jose Luis Urrutia iruritarrak erran zuenez. *«Erremontean etorkizuna garbi ikusi ez dutenak itzuli dira. Erremontean ere segituko dute, baina laxoan jokatzeko ere prest azaldu dira»*.

## ☞ OITZ

### Gaztetasunaren aldeko apostua



*«Ansoren ordez, Joaquin Ziganda, Oitzen izan dugun laxoa jokalari onenetako baten semea arituko da»* erran zuen Alberto San Miguelek. *«Bere aitaren izen bera du eta hark haina ko egurra ematea espero dugu. Horretaz gain, pilotari gazteak sartu ditugu eta, herria ttikia denez, Iparraldeko fitxaje bat ere egin dugu»*.

## ☞ DONEZTEBE

### Faborito nagusiak aurtengoan ere



Hiru talde plazaratu ditu Doneztebek bere hamekagarren txapelaren bila. Talde nagusian ez dute aldaketarik egin azken urteetan eta hori nabari da plazan. Beraiek dira faborito nagusiak, beti maila mantentzen badute behinipein.



Berako XXIV. pilota txapelketan finalista izan direnak — Argazkia: Aitor

# Berako pilota txapelketaren finalak jokatu ziren martxoaren 23an

## Berrogeitamalau bikotek parte hartu dute 24. edizio honetan

Martxoaren 23an burutu ziren Eztegara pilotalekuan Gure Txokoa elkarteak antolatutako Berako pilota txapelketaren 24. edizioko finalak, honako emaitza hauekin:

***Paletan:*** Felix Santamaria eta Josetxo Irastorzak, 30; Juan Luis Urkiola eta Joxan Lizardik, 22.

***Eskuz binaka, benjaminak:*** Mikel Irazoki eta Gaizka Martikorenak, 18; Peio Tomasena eta Iñigo Blasek, 17.

***Eskuz binaka, alebinak:*** Iñaki Eskudero eta Iñigo Irazokik, 18; Eneko Agirre eta Patxi Puyadenak, 10.

***Eskuz binaka, infantilak:*** Angel Telletxea eta Markel Etxebestek, 18; Julen Irazoki eta Unai Larretxeak, 16.

***Eskuz binaka, kadeteak:*** Gorka Irazoki eta Juan Mari Altzugurenek 22; Aitor Cerezo eta Gorka Retegik, 11.

Aurtengoan 54 bikote aritu dira txapelketan eta partiduen maila polita izan da, Luis Mari Retegi antolatzailearen erranetan.

## Lesakako Herri Laisterketaren bosgarren edizioa burutuko da igande honetan

Igande honetan , apirilak 13, burutuko da Lesakako Batzoki elkarteak antolatutako Herri Lasterketaren bosgarren edizioa.

Probari goizeko 10etan emanen zaio hasiera aurrebenjamin mailako probarekin (500 metro) eta 1,30ak aldera aldean bukatuko da, proba nagusiarekin. Benjamin mailako neskek ere kilometro erdia egin beharko dute; 1.000 metro benjamin mailako mutikoak eta alebin mailako neskek; kilometro terdi mutiko alebinak eta neska infantilak eta bi kilometro mutikoak infantil mailan.

Proba nagusia 12,30etan hasiko da eta bertan kadete mailako emakumeek 2 km. egin beharko dituzte; 4 km. maila bereko mutilek; 6 km. junior mailako neska-mutilek eta senior eta helduen mailako emakumeek eta 8 km. gizonezkoek senior eta helduen mailan. Partehartzea dohainekoa izanen da. Xehetasun gehiago 627522 telefonoan.



BOTE pronton

- **Plazaola Turismo Konsortzioko** txirrindulari taldearen aurkezpena burutu zen joan den ortziralean. Ez nolanahiko aurkezpena gainera, Basakabi hotelean izan baitziren Miguel Indurain eta Julian Gorospe txirrindulariak eta Mikel Saralegi harrijasotzailea. Aitzineko alean eman genuen Luis Vicente Otin leitzarrak zuzenduko duen taldearen berri zabala.
- **Miriam Blas** txirrindulari beratarrak parte hartu du Espainiako selekzioak joan den astean Pantikosan egindako konzentrazioan. Selekzioaren helburuak abuztuko Europako txapelketa eta iraileko munduko txapelketa omen dira selekzionatzailearen erranetan eta *«2000. urteko Joku Olinpikoak prestatzen hasi»*. Miriam jeitsiera probarako aukeratu dute.
- **Nafarroako Duatloi txapelketarako** baliagarria izanen den lehen proba Elizondon burutuko da apirilaren 27an, goizeko 11etatik aitzinera. Partehartzaileek 3 km. laisterka, 13 bizikletan eta azken hiruak laisterka egin beharko dituzte. Izen ematea 700 pta gostako da eta 580813 telefonoan egin daiteke.

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## KONTZERTUAK

### ELIZONDO

**Apirlaren 19an** Baztan frontoian Flaco Jimenez, Tapia eta Leturia Band eta Otsondo 602 gaueko 10etatik aitzinera. Xorroxin kontzertuak antolatuta.

### IGANTZI

**Apirilaren 12an** Joxe Ripiau taldearen kontzertua izanen da Igantzin, Erausian Gazteen Euskara Taldeak antolatua. Biltoki elkartean izanen da zita, gaueko 11etatik aitzinera. Ederra Joxe Ripiau!

### LESAKA

**Apirilaren 11n** Fumas Iskariote eta Derover taldeen kontzertua Arranon, 10etan.

## ERAKUSKETAK

### LESAKA

**Apirilaren 22a bitartean** Bereau jatetxean, Pilar Vea-Murgia margolariaren erakusketa.

## MAHAINGURUA

### ELIZONDO

**Apirilaren 11an** "Baztango bailara hurbileko urruntasunetik (edo alderantziz)". Partaideak: Ramon Arotzarena, Alejandro Arizkun, Jose Antonio Meoqui, Patxi Urrutia eta Peio Salaburu.

**Apirilaren 10ean** arratsaldeko 7,30etan Kasinoan, Udaberriko folkloreari buruzko solasaldia eskainiko du Jose Mª Satrustegik.

## BASERRIA



### ❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 9.800 pta.
- **Zerri gizena** (95-100): 200 pta/kilo
- **Zerramak:** 130 pzta./kilo bizirik.



### ❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 520 |
| 1.koa | 490 |
| 2.koa | 470 |

- **Urruxak:** Pzta/kg. Kanal

| | |
|---|---|
| Extra | 520 |
| 1.koa | 490 |
| 2.koa | 460 |

Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.

- **Aretze ttikiak** (15 egun ingurukoak):

**Nabarrak:** urruxak 15.000 eta idixkoak 24.000 Pta.

**Mestizoak:** urruxak 25.000 eta idixkoak 36.000 Pta.

**Behi zaharrak:**

Behi nabar gizena: 330 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 380 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: **EHNE**

## HAMABOSTALDIKO GOMENDIOA

### *Flaco Jimenez Elizondon*

Euskal Herriko talde aunitzek bertsionatu duten kantari eta musikari mexikarraren doinuak aditzeko aukera izanen da aurten ere Elizondon. Tex-mex musikaren erregea bezala ezaguna den Flaco Jimenez bere taldearekin etorriko da Baztan frontoira Xorroxin Kontzertuen eskutik. Gaueko 10etan hasiko den saioan, aitzinetik *Tapia eta Leturia Band* trikitilari taldea eta *Otsondo 602*, Pottoka amaiurtarrak gidatzen duen talde baztandarra arituko dira. Euskal Herriko plazetan eta eszenategian aski ezagunak lehenak eta bidea irekitzen dabiltzanak, bigarrenak.

Adin guztietako jendeak gustora adituko duen musika, doike. Ea joan den urtea bezalaxe, hiru belaunaldietako jendea biltzea lortzen duen Flacok.



**Flaco Jimenez berriro ere Elizondon aditu ahal izanen da apirilaren 19an, Xorroxin kontzertuan eskutik**

## DISKAK




**«BANEKI»**
Lin Ton Taun
DRO

Dagoenekoz salgai dago Lin Ton Taun taldearen hirugarren lana, orainarteko bidea alde batera utziz Dro multinazionalaren eskutik atera duten diska, "Baneki". Kritika zorrotzak jaso dituzte Zestoarrek, zenbait kanta erdaraz abestera behartuak egonen baitira, multinazionalak paratzen dien bertze hainbat baldintzen artean.

Musika aldetik, hemen arrakasta eman zien triki ukitua baztertu eta estiloa gogortzera jo dute, nahiz ahotsak lehen baina melodikoagoak izan. Bertzetik, gai sozialak utzi eta gai pertsonaletan murgildu dira, seguraski multinazionalaren aginduz. Grabazioa IZ estudiotan egin dute, nahasketa Madrilen eta masterra

JAKIN BEHARREKOAK

# *Kreditu txarteletik ebastea nahi ez baduzu...*



**Txartelak eskudirua baina puska seguruagoak badira ere, lapurren aurkako neurriak hartzea komeni da.**

Erosoagoa izateaz gain, kreditu txartela eskudirua eramatea baino seguruagoa ere bada, baina bere alde negatiboak ere izaki, neurriak hartzea komenigarria izan ohi da. Kreditu txartelak ebastea ez da hain zaila, eta egia erran, sarritan suertatzen dira horrelako kasuak, baina hori ekiditeko moduak erraxak direla kontuan hartzen badugu ez duzu beldurrik izan behar.

### Kodea sekretupean gorde

Txarteltxo bakotxak kode sekretua du, eta txartelaren jabeak soilik du zenbaki horren berri. Lapurrak zenbaki hauek bilatzen hagitz abilak dira, beraz, inon apuntatuta ez eramatea hobe, eta ahal bada ez inori erran. Hala nahi izanez gero zenbaki sekretu hau aldatzerik badago, eta horretarako bankura hurbiltzea bertzerik ez duzu. Gidatzeko karneta, NANa edota bertze edozein identifikazio dokumentu txartelekin batera eramatea hagitz arriskutsua izan daiteke, lapurrek bankuan eskudirua jaso baitezakete sinadura faltsifikatuz. Gainera, lapurra espabilatu xamarra baldin bada, diru guzia kendu ahal izanen dizu. Horregatik, txartelen bat etxean uztea gomendatzen da, den-denak soinean eraman beharrean.

### Kutxazainetako iruzurra

Dirua ateratzerakoan, ordenadoreak agintzen duenari bakarrik erreparatu behar zaio, bertzelako mezuei kasurik egin gabe. Zenbaitetan, zenbaki sekretua hiru aldiz markatu behar duzula erraten duen pegatina itsekitzen dute lapurrek pantailaren ondoan, eta kodea markatzen ari zaren bitartean, iruzurgileetako batek buruz ikasten du. Kutxazainak, zenbakia hiru alditan markatzeagatik txartela irentsi egiten du, horretarako programatuak baitaude. Hori ikusita erabiltzaileak alde egiten du, eta instantean hor hurbiltzen da lapurra, aurrez manipulatu duen zirrikitutik txartela ateri eta posible duen diru guzia hartzeko prest.
Txartela galdu edo ebasten badizute, zure bankura lehen bait lehen abisua eman beharko duzu eta komisarian salatu. Salaketa horren kopia batekin bankura joan eta txartel berria egin dezakezu. Normalki diru-ateratze haundirik ez baduzu egiten, muga paratzen ahal zaio eguneko ateratzen den diru kopuruari.
Neurri guzi hauek hartzen badituzu, hagitz zaila izanen da txartelarekin ezustekoren bat izatea.

## ☞ LIBURUAK




**«PARISKO ANDRE MARIA»**
Victor Hugo
EREIN

Gutxitan aurkituko du irakurleak eleberri historiko batean hainbeste erakarriko duten gertakizunik. Ongi ezagutzen zuen Victor Hugok Paris, eta zer esanik ez Parisko Notre Dame edo Andre Maria. Bertako dorre batean aurkituriko eskuz grabaturiko hitzak eraman zuen egilea eleberri hau idaztera. Kaligrafia gotikoak, Erdi Aroko esku batek eta batez ere adierazitako mezu zorigaiztokoak harritu zuen egilea. Erromantizismo garaiko Paris ekartzen du Victor Hugok. Batzuetan samin, gozoago besteetan...baina irakurlea lotua geratuko da Andre Mariaren katedralaren arkitektura liluragarriak erakarria.

(ARGIAtik bildua)

# AGENDA EGUNEZ EGUN

## MENDI IRTEERAK

### BAZTAN

**Apirilaren 13an**
Hondarribira joanen dira Baztango Mendigoizaleak. Elizondo-Atxuela-Usategieta-Lizuniaga-Ibardin-Biriatu-Hondarribia.

**Apirilaren 20an**
Iparlara joanen dira Baztango Mendigoizaleak. Euskararen Egunaren barnean.

## ZINEA

### LEITZA

**Apirilaren 11 eta 13an** 'La Celestina' eta 'David el Gigante de piedra'.

## ANTZERKIA

### ELIZONDO

**Apirilaren 12an**
Iruritako Antzerki Taldearen emanaldiarekin emanen zaio bukaera Udaberri Kulturalari.

## GUARDIAKO BOTIKAK

061 Tfnora. deitu behar da

**Apirilaren 7tik 13ra**
Arantza, Doneztebe, Elizondo (Lezaun), Goizueta, Urdazubi.

**Apirilaren 14tik 20ra**
Igantzi, Doneztebe, Elizondo (Iturralde), Leitza, Goizueta.
,Goizueta, Urdazubi.

**Apirilaren 21etik 27ra**
Lesaka, Sunbilla, Elizondo (Lezaun), Goizueta.

**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK / LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK / ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Salerosketak
602. Emateko
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**

**zein erraza den zure anuntzioa hemen jartzea...** *Hegoaldetik deitzeko 948- Iparraldetik 00-34-48* **631188**

**...eta gainera, zure berri zonako etxe guzietan izanen dute!!**

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. **ttipi-ttapa**k ez du bere gain hartzen dohainik argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzukizunik.

## ETXEBIZITZAK

### 101 SALDU

**BERA.** Pisua salgai. Hiru gela eta ganbara. ☎ 909.432416 (arratsaldez).

**BERA.** 125 m²ko pisua salgai, 33 m²ko trasteroarekin. Eztegara pasealekuan. ☎ 630837.

**LEITZA.** Herritik bi kilometrora, borda txiki bat salgai dut. 7.000 m²ko lur eremua, bere pinu eta guzti. Ura badauka baina azken kilometroan traktore bidea. 2.500.000 pezeta. ☎ 510167 (gauetan).

## ETXEBIZITZAK

### 102 EROSI

**Borda** bat erosi nahi da. ☎ 450326. Gauez.

## ETXEBIZITZAK

### 104 ERRENTAN HARTU

**MALERREKA.** Etxe edo pisu merkea errentan hartu nahi da. Erreformak gure kontura. ☎ 450326.

**ELIZONDO.** Pisua errentan hartu nahi da akademia paratzeko. ☎ 450326.

**Baztan-Malerrekan** etxea, borda edo soroa erosi edo errentan hartuko nuke. ☎ 451746 (goizez).

## GARAJEAK/LOKALAK

### 107 SALDU

**LESAKA.** 60 m²ko bodega salgai, bortz milioi terditan. ☎ 387093.

## GARAJEAK/LOKALAK

### 109 ERRENTAN EMAN

**LESAKA.** Garaje bat errentan emanen nuke, albistur, 64ean. ☎ 637820.

**LESAKA.** Lokal komertziala errentan ematen da. ☎ 637306.

**LESAKA.** Lurrazpiko bajera alokatzeko Albistur karrikan. ☎ 637948.

## ZERBITZUAK

### 201 IGELTSEROAK

**Igeltsero lanak** egiten dira, abudo eta merke ☎ 450326 (gauez).

## ZERBITZUAK

### 205 ZURGINAK


**ARANTZA ZVRGINDEGIA**
*Klase guztietako zurgin lanak*
Osiña auzoa ✆ 948-634068 • ARANTZA

**Juanjo ERRO**
Zurgin lanak orokorrean
Moble zaharrak konpontzen ditugu
• LESAKA •
✆ 989.800249


## ZERBITZUAK

### 208 BERTZELAKOAK

**Kartelak**, buzoiratzeko paperak, bisita txartelak, faktura taloiak... egiten ditugu. ☎ 631188 Bulego orduetan.

## LANA

### 301 ESKARIAK

**Pelukeria titulua** duen Lesakako neska bat eskaintzen da pelukeria batean lan egiteko. ☎ 637136.

**Emakume bat** edozein lanetan arituko litzateke Lesaka inguruan, haurrak zaintzen edo etxeko lanak egiten hobe. ☎ 637825.

## LANA

### 302 ESKAINTZAK

**Emakume bat** behar dugu etxeko lanak egiteko. ☎ 630273 (gaueko 8etatik aitzinera).

## MOTORRA

### 501 SALEROSKETAK


**BERABI tailerrak**
NISSAN ✆ 631445 • BERA
**Bigarren eskuko kotxeak:**
Nissan Patrol Top-Line
Citroen BX TRD ABS, SS-AC
Jeep Cherokee 2.5 TD
Nissan Patrol, NA-P
Ford Escort SS-P


**Honda CBR 600ekoa** salgai, karreterakoa, 1990 urtekoa. ☎ 630270 (bazkalorduetan).


**MENDAUR MOTOR**
✆ 450333 • DONEZTEBE
**Bigarren eskuko kotxeak:**
• Renault Super-5
• Clio Diesel 3 urtekoa
• Clio gasolina
• Suzuki Vitara labur eta luzeak
• Furgoneta MD-140


**Gas-Gas motoa** salgai, 370 modeloa, 1996koa. Erabili gabea. ☎ 630793 (1etatik 2etara).

Nissan markako **kamioia**,


**LACAMBRA**
✆450082
Parrokia, 18
**DONEZTEBE**

JONSERED DESBROZADORAK



Audi SAMPI ARAGON

**Bigarren eskuko diesel eta gasolinazko autoetan aukera zabala**
- Audi TurboDiesel
- Renault Espace
- Seat Marbella
- Renault 5
- Seat Malaga
- Seat Ibiza
- Seat Cordoba Diesel
- Fiat Uno
- Mitsubishi Pajero

© 45 03 54 • DONEZTEBE

90 zaldikoa. Bolketea eta tarjeta badu. ☎ 637210 arratseko 8etatik aitzinera.

**Peugeot 405** SRDTkotxea salgai, NA-8399-AF matrikuladuna eta haize egokituarekin. ☎ 630299.

## ANIMALIAK

### 601 SALEROSKETAK

Hiru urteko **aharia** salgai. Oso ongi zaindua. 25.000 pezeta. ☎ 510204.

ALBAITERITZA KLINIKA
Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
© 627660 LESAKA
Txepetxa

**Bi ahari** salgai, bata mutur-gorria eta beltz-beltza bertzea. Pirenaika arrazako **migatua** ere salgai dugu, 23 hilabetekoa. ☎ 943-528185

**Behiak saltzeko** dauzkagu, esnea saltzetik utzi dugu-eta. ☎ 387006 (arratseko 8etatik 9,30etara).

**Aharia saltzeko**, 2 urtekoa eta arraza onekoa, mutur gorria, Leitzako Bordaberrian. ☎ 610607.

Euskal arrazako **artzain txakurra**, urtebetekoa oparitzen da. ☎ 637050.

**Beltxarga (zisne) batzuk** erosi nahi ditut. Non aurkitzen ahal ditudan baldin badakizu deitu. ☎ 637264 (Mikeli. Denda orduetan).

**Bi ahuntza** salgai, bat bi urtekoa eta bertzea bere umearekin. Sokan lotuta egotera ohituak. ☎ 599141.

## DENETARIK

### 702 SALEROSKETAK

**Pal-Secam bideoa** salgai. Gutti erabilia. ☎ 637050 Bulego orduetan.

**Gasoil deposito** bat salgai. 200 litrokoa eta metalezkoa. Egoera onean. Merke. ☎ 631239.

**Lurra iraultzeko Rotabator** makina salgai, Alfa markakoa. Prezioa negoziagarri. Egoera onean. ☎ 630985.

Renault Trafic baten **atzeko esertokia eta segurtasun gerrikoak** (hiru hilabetez erabiliak) salgai. ☎ 452239-580707 (Iñaki).

Sime markako **Gasoilezko galdara** salgai. 45.000 pezeta. ☎ 452431 (9etatik aintzinera).

**Esne-tankea** salgai, Alfa-Laval markakoa eta 200 litrokoa. ☎ 510356.

Teka markako **labea salgai**, altzairu inoxidablea eta estreinatu gabea. ☎ 452431

Teka markako **plaka bitrozeramikoa**, estreinatu gabea. ☎ 452431

Teka markako **ke-erauzgailua**, altzairu inoxidablea, eta erabili gabea salgai. ☎ 452431

**STIHL markako desbrozadora** salgai, gutti erabilia. ☎ 452431 (arratseko 9etatik aintzinera).

**Kanpineko karro** bat saltzen da. ☎ 452239-580707.

## DENETARIK

### 703 BERTZELAKOAK

**Pertsona bat** behar dugu Iruñeko Arrosadia auzoan pisua osatzeko. ☎ 237072 (Mikel, eguerdi eta gauez).

**Kitarra eta baxu** klaseak ematen ditut. ☎ 630217 Fermin.

## HARREMANAK

### 801 AGURRAK

**A-ko I.:** ez izan hain txibata. Kontakatilu halakoa!

**Orereteko** Mikeli: zorio-







**Bidali** TTIPI-TTAPA
**herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei**

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.
Eskatu informazioa.

© 631188

# 1997-98 IKASTURTEA

# Izena emateko epea:

## APIRILAREN 7tik-18ra



## D.B.H. (12tik 16 urtetara)

**Lehen Hezkuntzatik edo "B.U.P."eko 1. kurtsotik**

## D.B.H. ondotik BATXILERGOA eta

## LANBIDE HEZIKETAN:

**Erdi mailako Heziketa-Zikloa (16 urtetan), 2 urtez**
**Goi mailako Heziketa-Zikloa (18 urtetan), 2 urtez**

**Arlo hauek lantzen direlarik:**

- Automatismoak
- Neumatika, hidraulika
- Informatika
- Elektronika
- Elektrizitatea
- Robotika
- Kontrol Numerikoa
- Marrazketa eta diseinua
- Soldadura, makinak,...

## TOKI ONA INSTITUTUA

**BERA ☎ 948-630411**

# ELIZONDO

Baztan Frontoian

Apirilaren 19an
Gaueko 10etan



# FLACO JIMENEZ

## TAPIA ETA LETURIA BAND

## eta OTSONDO 602

Sarrerak aitzinetik 1.500 Pta. Takilan 2.000 Pta.

Salgai leku hauetan: IRUÑEKO KUTXAko bulegoetan
GARAZI: Irulegi Irratia, IRUN: Bertso Hop, ERRATZU: Zubipunta.
XORROXIN IRRATIA eta Linea Caja Pamplona 22 23 33.
Laguntzailea: **ttipi-ttapa**

HEMEN
XORROXIN
IRRATI
107.5 F

IRUÑEKO KUTXA 125 años